

puntuua

10.000.eus

PUNTUEUS

5 URTE BETE BERRITAN,
10.000 DOMEINUREN LANGARA IRISTEAR

Puntueus fundazioko zuzendari Josu Waliñorekin elkarriketa



PUNTUA 200

2019-07-05 EGUBAKOITZA

Azalaren diseinua:
Iñaki Iturbe.

Aurkibidea

- | | | | | | |
|----|------------------------------|---|----|-----------------------------|---|
| 4 | Bat-batea | Juan Kruz Lakasta | 42 | Gure altxorrak | Aretxabaleta:
Bainuetxeen hiria |
| 6 | Irudiz | Belar bolak egiteko garaia | 44 | Gadgetmania | |
| 8 | Mundutik | Txina: Ezkontza xelege bat | 46 | Handitzen, handitzen | Eskulana:
<i>Dragoi-burua kartoizko arrautza-kaxekin</i> |
| 10 | Erreportajea | Saiolan: ekintzailatza hauspotezen | 47 | Jaioberriak | |
| 20 | Elkarrizketa | Josu Waliño,
Puntueus fundazioko zuzendaria | | | |
| 24 | Osasuna | Entzumen urritasuna
hautzaroan | | | |
| 26 | Kirola | Nera Pavo, areto-futboleko atezaina | | | |
| 28 | Debagoiena eraldatzen | Denda txikiak | | | |
| 30 | Otorduan | Etxe Aundi jatetxea:
produktu freskoak | | | |
| 32 | Moda | Musika jaialdietarako
janzkera | | | |
| 34 | Motorra | Mikel Fernandez de
Arroia, gidatze irakaslea | | | |
| 36 | Gure artistak | Aitor Otaduy
arrasatearra | | | |
| 38 | Kultura | Euskara ikasten eta
maitatzen | | | |

IRITZIA

- | | | |
|----|----------------------|---|
| 3 | Nire txanda | Nagore Ipiña <i>Amaitu gabeko esaldia</i> |
| 16 | Hainbat aburu | Inazio Arregi <i>Hegazkina ala tren?</i> |
| 16 | Eztabaida | Telesailen bizioa eta ondorioak |
| 17 | Xixili | Helena Azkarragaurizar |
| 17 | Errematea | Oskar Elizburu <i>Euskara eta AEK, plazara</i> |
| 18 | Talaiatik | Urko Lopez <i>Huawei al da benetako arazoa?</i> |
| 40 | Komunikazioa | Maialen Santos <i>Hartu-emanak</i> |

puntua

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

TOKIKOM

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Aitor Izagirre
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal
Zuzendaria
Eneko Azkarate

Erredaktore burua
Monika Belastegi
Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate
Publizitate arduraduna
Mireia Larrañaga
Kirola eta banaketa
Igone Osinaga
Maketazioa
Aitor Lagoma

Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza
Martin, Amaia Mundiñano
Administrazioa
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Bereizibar,
Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
berriak@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

Lege Gordailua:
SS-1509-2014
ISSN: 2443-9738
Tirada: 4.100 ale

Inprimategia:
Gertu Komunikaziobide SL

PUNTUA ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

Amaitu gabeko esaldia



NAGORE IPIÑA

PREDIKATUA. ADITZ UGARI. DESIKASTEA ETA BERRIKASTEA; IKASITAKOA BIRPROGRAMATZEA

Subjektua I. Dena jakin nahi dute. Pentsaezinak eta intimoak diren ezagutzak desio dituzte; ireki eta arretaz. Ulertu nahi dituzte keinuak, begiradak, mugimenduak eta, batez ere, esan-eginak. Ezinegona sortzen diete egia absolutuek eta pentsamendu globalak. Ezkutatzen den oihartzunaren errima eta erretorika dira estimulagarri beraientzat. Urrunera begiratzen dute. Arakatzuz, galdetuz, munduko fikzio eta ekuazioak ezagutu nahi dituzte. Galdera, tonu, kolore eta erritmo ezberdinekin formulatuz. Subjektu gramatikoa baino gehiago, subjektu aktiboa da.

Subjektua II. Galdera asko egiten dituzte; besteei zein beraien buruari. Egiten dutenez eta egiten ez dutenez; sortzen dituzten lokarriez eta askatzen edo solte uzten dituztenez. Begirada zabaltzea, norbere buruarekin konektatzea, desioekin, esperientzia sentsibleekin eta ametsekin bat egitea, krisiak bizi eta horiei aurre egitea, galdera onak egitea, norbere buruari denbora eman behar zaiola ulertzea, denboraren balioa indartzea, hasi baino lehen porrota ez sentitzea... esandakoetatik bakarra lortuz gero, zentzua du enuntziatuak. Subjektua II aktiboa da ere.

Predikatua. Aditz ugari: Desikastea eta berrikastea. Ikasitakoa birprogramatzea. Ezezagunak direnak entzutea, ikustea eta sentitzea. Istorio zaharrak erreskatatzea eta berriak sortzea. Nahigabe zein modu kontzientean egindakoaz elkar-elikatzea: gogoratuz, ulertuz, erabiliz, aztertuz, ebaluatuz eta sortuz. Datorrenerako prestatzea. Finean, bizitzaren eta bizi proiektuaren argumentuaren haria eraikitzea. Oinarri partekatuak garatzea, adostea. Gai kolektiboa da predikatua.

Subjektua I da ikaslea, dira ikasleak. Subjektua II, hezkuntza komunitatea. Predikatua da hezkuntzaren esentzia. Definizio poetizatuak –zenbaitetan, profetizatuak– badira ere, izena eta izana dute; ahalduntze sozialaren abiapuntu dira. Eta, hainbatetan, amaitu gabeko esaldiak sortzen ditugula iruditzen zait; subjektu gabe edo predikatu gabe. Esaldia amaitzeko aukera dugu, eredu poetikoa(k) eraikitzeko, sakontasunezko (= fundamentuzko) hezkuntza eredua(k) sortzeko. Etorkizuna proiektatzeko eta sortzeko. Baina, irailetik aurrera izan beharko da... ■■■

Juan Kruz Lakasta

TXOMIN MADINA

ARGAZKIA: HARITZ PASCUAL

Iruñeko kazetariak, Euskalerrria Irratia bakarrik ez, sortu berria den *Ttap* aldizkari digitalaren Nafarroako edizioa ere koordinatzen du egun.

Irratia, telebista, prentsa, Internet... horiek guztiak jorratu ostean, zer geratzen zaizu kazetaritzan egiteko? Kazetaritzan, oso argi daukat nire etxea Euskalerrria Irratia dela. Baina, era berean, argi daukat bestelakoetara bidaiatzea gogoko dudala. Eta horixe egiten segitu nahiko nuke. Gauza berriak egiteko beti prest.

Zer pentsatu zenuen *Ttap* aurkeztu zizuten lehen aldian? Irratiko erritmo bizira ohituta dagoen ni bezalako kazetari batentzat, luxu bat izanen zela noizean behin elkarrizketa bat patxadaz, lasaitasunez grabatu ahal izatea. Eta asmatu nuen: gozatzen ari naiz.

Nolako erantzuna izan dute *Ttap*-en Nafarroako edizioako lehen zenbakiek? Oso erantzun ona, oso pozik gaude feedbackarekin. Bistan da bazegoela horrelako proiektu baten egarria Nafarroako euskal hiztunen komunitatean. Informazioaren eta aisialdiaren kontsumoa gailu mugikorretan esponenzialki hazten dabilen honetan, denok dugu horrelako formatu berrien premia; eta berrikuntza euskaraz iristea oso albiste ona da, bai Nafarroarentzat eta baita Euskal Herriarentzat ere.

Nafarroan euskarazko kazetaritza egiteko burugogorra izan behar da? Ez zait iruditzen beste inon baino gehiago izan behar denik. Edu Lartzagurenen txio bat datorkit gogora: *Euskaigintzako militante engaiatu bakoitzaren alboan, soldata normala duen bikotekide eskuzabal bat dago*. Hori hala da Iruñean, Arrasaten eta Baionan. Euskalerrria Irratian, tokatu zaizkigu ezohiko kontuak bidean; euskarazko kazetaritza egin ahal izateko bidea zabaltzen energia eta diru asko xahutu dugu. Baina onurak ere ekarri ditu: erresilientzian zaildu gaitu, bestelako bideak jorratzera bultzatu gaitu, eta gure irratiaaren inguruan sekulako komunitate ahaltsu eta eskuzabala sortu da.

Umorearekin zipriztintzen dituzu zure lanak. Lanetik kanpo ere halaxe egiten duzu? Badut *malaletxe*-a, baina umorearena bada mundua begiratzeko modu bat; *malaletxe*-an zaudenean, ironiaren eta sarkasmoaren bidetik ere jo daiteke. Umorea eta *malaletxe*-a uztargarriak dira.

Zein izan da elkarrizketatu batekin izan duzun momentu deserosoena? Behin, elkarrizketa luze eta mamitsua egin nion Antonio Alvarez Solis kazetari eta iritzi-emaile espainiarrari, eta amaitzean konturatu nintzen grabagailua *pause*-n zegoela. Berriz egin behar izan nuen osorik.

Gaurkotasunak aspertu zaitu inoiz? Uste dut Euskal Herrian, urte askoan, monotemaren inguruan hiperinformatuak egon garela; Eta esparrua zabaltzeko beharra dugula, informazio politikoari uko egin gabe. Adibidez, iruditzen zait euskal hedabideok, oro har, ahalegina egin behar dugula entretenimendua hobeki lantzeko.

"Fribolitatea!", esango du norbaitek. Ez dira kontrajarriak. Hedabide berean informazio serioa eta entretenimendua egin ditzakezu. Egin behar dituzu. Arintasuna eta arinkeria ez dira gauza bera.

Imajinatu duzu zeure burua inoiz beste lanbide batean? Gaztetatik izan dut argi kazetaritza nuela gustuko; 16 urterekin hasi nintzen, Eguzki Irratian. Urteekin, hainbat lagunek eta lankidek beste bide batzuk hartu dituzte; adibidez, irakaskuntza.

Neure buruari galdetu izan diot ea irakaskuntzan ariko nintzatekeen, eta ez. Ezinen nuke.

Zenbat Nafarroa ezagutzen dituzu? Nafarroa eta Euskal Herri asko daude, eta, maiz, bizkarra ematen diegu. Iragarki batek zioen: *Badira mundu gehiago, baina honetan daude*. Errealitate oso gordinak daude gugandik oso hurbil. Askoz gehiago erreparatu beharko genieke; ertzetako horiek erdira ekarri beharko genituzke.

Sanferminetan, zein da galdu ezineko ekitaldia? Edozein galdu daiteke; galdu ezin dena kalea da, ezezagunekin eta lagunekin hitz egitea, jatea, edatea, dantza egitea, maitatzea... Horretan, eta ez egitarauan, datza nire gustuko sanferminen xarma: sakonki herrikoiak dira, horizontalak. ■



Belar bolak egiteko garaia

ARGAZKIA: EIDER MURGOITIO

TESTUA: IMANOL BELOKI

Orain da garaia belarra jasotzeko, eta lan horretan ari dira bailarako baserritarrak. Traktoreen zarata eta belar moztu berriaren usaina nabarmena da baserri alboetan, baina argi dago hori egiteko modua asko aldatu dela. Garaiak aldatzen doaz, eta, horrekin batera, baita lan egiteko modua ere. Lehen auzolanean egiten zena, sardea eta eskuarea hartuta, gaur egun makineria handia erabilia egiten da. Belarra moztu, eta pare bat egunez sikatzen utzi behar da; eguraldiaren arabera, egun gehiago edo gutxiago behar izaten ditu prozesu horrek, eta batzuek fardoak egiten dituzte; beste batzuek, aldiz, belar bolak. Azken horiek egiten izan dira Udala auzoan, Kabuena baserrian. Argazkian, Patxi Murgoitio ageri da, traktorea gidatzen, belar bola eginda duela, silo plastikoarekin biltzea geratzen zaiola. ■■■





Ezkontza xelebren bat

TXINA



JON ZABALA

TXINAN BIZI DEN BERGARARRA

ARGAZKIAK: J.Z.

Graduatu berri, 2018ko azaroan, bizitzan entzun ez nuen Ningbo izeneko Txinako hiri batera abiatu nintzen, lan zein bizitza esperientzi berriak lortzeko asmoz. Txinara heldu bezain pronto, hurrengo hilabeteetan senide bilakatuko zen lankidea ezagutu nuen, Luffy izeneko ningbotar bat.

Halaxe, denborak aurrera egin zuenean, esperientzia kurioso bat bizitzeko aukerarekin topo egin nuen: egun batean, Luffik bere ezkontzara gonbidatu eta *roomsman*-a izatea proposatu zidan –ohorezko gonbidatua–, beste hiru lagunekin batera. Itsu-itsuan, proposamenari baiezkoa eman nion; konturatu gabe, hilabete bat pasa eta eguna iritsi zen.

Jan-edan aurreko errituak

Eguna senargaiaren etxean hasi zen guretzat, goizean goiz, 07:30ean, kaligrafia gorritz *zorion bikoitza* esaldia edonon jaritzen zuen etxean. Elkarrekin gosaldia eta berehala abiatu ginen, bakoitza goi mailako auto beltz batean, emaztegaiaren etxerantz. Izan ere, zortea eta familiaren ongizatea sustatzeko hainbat erritu burutzen dituzte ezkontza egunean zehar.

Baina emaztegaiaren etxera iristean, eta hau ikusi aurretik,

ohorezko damek zein familiak erronkaz beteriko bide bat prestatu zekuten. Erronka hauek senargaiak bere balioa frogatzeko eta emaztea ikusteko aukera irabazi behar duen premisa pean pentsatzen dira.

Lehenik, familia osoa topatu genuen atarian. Su artifizial, petardo eta konfetiz beteriko jai giroan zeuden, baina hauek bukatu bezain laster, antzerkia hasi zen, diru kantitate sinboliko bat ordaintzeko burutzen den negoziazio bat, non senargaia eta lagunok diruz beteriko gutun gorriak banatzen zein bultzaka, ataritik pasatu ahal izatea lortu genuen.

Behin ataritik pasa eta etxera iristean, emaztegaia gela itxi baten zain zegoen bitartean, emaztegaiaren lagunak prestatuak erronkarekin egin genuen topo: jolas umoretsuz beteriko prozesua; edari kaxkar batzuk hartzea, adibidez: wasabidun ura, gatzdun Coca Cola, 40 graduko likore zuri bat edota kafesne bat. Azken hau, nire zorterako, *laowai* kanpotarrarentzat.

Erronkekin jarraituz, hainbat azterketarekin jarraitu genuen,

LUFFIK EZKONTZARA GONBIDATU, ETA BERE OHOREZKO GONBIDATUA IZATEA PROPOSATU ZIDAN

emaztegaia telefonoz dena entzuten zebilela. Bere telefono zenbakia eta amaren urtebetetze eguna gogoratzeko gai ginen frogatzea, adibidez, edota poemak abestu. Azkenik, gelaren ate azpitik gutun gorriak pasatu genituen, atea zaintzen zeudenak distrainatzeko. Horrela lortu genuen azken atea pasatzea.

Behin gelan sartu eta erronka guztiak bukatuak zeudela zirudienean, emaztegaia ohe gainean soineko gorri batekin topatu genuen, baina zapatarik gabe. Logela hankaz gora jarrita, ezkutuan zeuden zapatak topatu eta etxetik emaztegaia ateratzea lortu genuen.

Txinatar ohituren arabera, emaztegaiaren familiak kide bat galtzen du, senargaiaren familiara pasatzen delako, bere abizena galduz. Gauzak horrela, familiarekin azken bazkari bat izan eta bikotearekin batera senargaiaren etxera abiatu ginen *te ekitaldia* burutzeko. Ekitaldi honetan, bikotea senarraren gurasoen aurrean belaunikatzen da eta txinatar tea zerbitzatzen du antzina bezala. Horren truke, gurasoek beren bedeinkazioa ematen diete ezkontzarekin aurrera egiteko.

'Mendebaldartutako' zeremonia

Jarraian, gertuko senide eta familiarekin, hotelerantz joan ginen zeremonia ospatzeko.



Ezkontideak, erdian. Goian, eskuinetik hasita bigarrena, Jon Zabala.

Gaur egun, mendebaldeko baten antzekoagoa da, tamalez, nik espero nuen xarmaz beteriko tradizioaren orde. Hotelaren lorategian, karismadun aurkezle batekin eta Hollywoodeko pelikula bateko ezkontzaren agertokiarekin egin nuen topo. Emazteak ezkontza soineko zuria zeraman eta senarrak, traje urdina. Ezkontza botoak irakurri eta eraztunak trukatu zituzten.

Azkenik, gauez, hotel berean, bigarren zeremonia burutu zuten, urruneko senideek ere parte hartzeko aukera izateko. Honetan, 200 pertsona inguru batu ginen.

Gonbidatuak heldu bezain pronto, hauengandik diruz beteriko gutun gorri bat jasotzea espero da, zortea daukan zenbaki batez bukatu beharra daukan zifra

batekin, noski. Txinatarren superstizioen arabera, 6, 8 eta 9 dira zenbaki horiek, baina, ezkontza bi pertsonaren arteko ekitaldia izanik, zenbaki bakoitiak ez dira ongi etorriak, eta, nire txinatar irakaslearen aholkuarekin, 888 zenbakia zuen gutuna prestatu nuen.

Galanta bizipoza sentitu nuena *groomsman* izatearren, dirudun gutun gorria eman orde, senar berriarengandik jasotzea tokatzen zitzaidala entzun nuenean, egun garrantzitsu horretan

TXINATAR OHITURAREN ARABERA, EMATZTEGAIA SENARGAIAREN FAMILIARA PASATZEN DA EZKONDU OSTEAN


emandako laguntzagatik – tradizioak hala agintzen du–.

Zeremoniarekin jarraituz, gelan sartu bezain pronto ohartu nintzen jantzi zein traje faltaz. Izan ere, lan zein eguneroko arropak besterik ez zen ikusten, formaltasun maila ezberdina honelako ekitaldi baterako. Baina guztiz ulargarria, kalean, zineman, zein jatetxe batean txinatarrak pijaman topatzen ditudala kontuan hartuta.

Laster hasi zen *show*-a mahai zirkularrez inguratutako fantasiazko dekorazioa zeukan agertokian. Testuinguru honetan, arratsaldean ezagutu berri nuen aurkezlea bikotearen istorioa azaltzen hasi zen bideo bat proiektatzen zen bitartean. Behin hau bukatuta, aurkezleak senargaia agertokira deitu eta eztei soinuarekin emaztegaia aitarekin azaldu zen, arratsaldean izaniko prozesua errepikatzeko, baina, kasu honetan, antzezpen luzeago eta familiar zentratuago batekin.

Pare bat ordu geroago, jolasez, senideen emeraldiz eta janari zein edariz beteriko gauean amaitzean, tripak topera genituela, 200 txinatar desagertu ziren bost minututan.



Metro eta erdiko txerri-peluxe batekin nengoen ni, jolas bat irabazita nire txinatar maila guztien aurrean frogatu ostean, etxetik 10.000 kilometrorra. Egun ahaztezina izan zen hura, zalanza barik. ■



Saiolan: ekintzailetza hauspotzen

Saiolan ekintzaile gazteak hezteko eta euren enpresak sortzen laguntzeko eratu zen 1985ean. Fokua Debagoienean jarrita eta inguruko enprekin elkarlanean, ordutik hona, berrikuntzari dagokionez bakarkako ekintzaileei eta baita enpresei euren ideiak garatzen eta aktibitate ekintzaileak sortzen buru-belarri ibili da.

Testua: **Josu Bilbao**. Argazkiak: **Saiolan eta J.B.**



Mondragon Eskola Politeknikotik abiatu zen gaur egun Saiolan izenez ezagutzen den enpresa. Enpresen esperimentaziorako aktibitate zentro bat sortu zen, izan ere, 1981ean. Behar bati erantzuteko sortu zen, Ingeniaritza Eskola barnean. "Ingeniari gazteen langabezia tasa %50 inguruan zegoen, eta krisi baten barneran geunden. Enpresendako proiektu batzuk egiten ziren, eta, beste buelta bat emateko, gazteei enpresetan formakuntza eta euren enpresak muntatzeko laguntza eskaintzea ziren helburuak. Gero, 1985ean, Saiolan Eskolako sail berezi bezala sortu zen, 1991ra arte", azaldu du Javier Bikuña zuzendariak.

1992an eratu zen sozietate mugatu moduan, hain zuzen ere, bi aktibitate nahiko ezberdin zituelako esku artean, hezkuntza eta promozioa. Horrela, bi aktibitateak bereiztea erabaki zuten. 1997an, gero eta enpresa gehiago sortu ziren Saiolanen eskutik, eta toki falta zela-eta Arrasateko Zerrajerako erlojuaren eraikinean kokatu zen enpresa. Orduan, CEI (Ikerkuntzarako Enpresen Zentroa) Saiolan bilakatu zen, SPRIren eskutik (Enpresa Garapenerako Euskal Agentzia): "2000, urtetik aurrera ekintzailatza Lanbide Heziketako institutueta bultzatzen hasi ginen. Gaur egun oraindik abian dagoen UrratsBat programa bultzatzen ibili ginen. Urtero 60-70 enpresa sortzen dira, gutxi gorabehera, programa horri esker".

2010ean, Garaia eman zuen jauzia Saiolanek, eta 2016a ezkerro BIC Gipuzkoaren Arrasateko egoitza ere bada –Gipuzkoako kultura ekintzailearen sustatzaile nagusia–.

1. Etxeko olio jasotzeko edukiontzia eta makinaren maketa eta prototipoa, Eko3r kooperatibarekin landutakoa.
2. Industria farmazeutikora bideratuta, pastillak kargatzeko eta banatzeko makina, Fagor Healthcare-ekin landutakoa.
3. Ulma Polimeroko prototipoak.

"Debagoieneko eskaerei erantzuteko gaude"

JAVIER BIKUÑA SAIOLANEKO ZUZENDARIA

Zenbat proiektu jasotzen dituzue Saiolanen?

Gutxi gorabehera, urtero 100 bat proiektu etortzen dira gura. 2018an, adibidez, 31 ekintzaile gerturatu ziren eta 70 enpresetatik etorri ziren. Gaur egun, proiektu gehienak enpresetatik etortzen dira.

Zeintzuk dira gaur egun Saiolanen aktibitateak BIC Gipuzkoa moduan?

Gure jarduerarik garrantzitsuenak da. Horrela, ekintzaileak kulturaren gainean sensibilizazio eta promozio ekintzak egiten ditugu. Proiektuen gauzatzean eta prototipoen garapenean laguntza eskaintzen dugu, eta finantzaketan eta dirulaguntzekin ere tutoretzak eskaintzen dizkiegu behar dutenei. Gure bitartez kudeatzen dira dirulaguntza horiek, ekintzailea ezin da-eta zuzenean dirua eskatzera joan.

Ze zerbitzu eskaintzen diezue enpresei?

Hiru lerro jorratzen ditugu. Nazioarteko antena, alde batetik. Hau da, saiatzeko gara negozio edo teknologia berriak bilatzen Japonian, AEBetan, Kanadan eta Hego Korean. Herrialde horietan aktibitatea bilatzen saiatzeko gara, baina ez multinazionalen bidez, haiek Europara etortzen dira eta. Euren herrialdeetatik irteteko arazoa duten enpresa txiki eta ertainetan dagoen teknologia bilatzen saiatzeko gara.

Interesgarriak iruditzen zaizkigunak aztertu ondoren, merkatua nola dagoen ikusi eta hemengo enpresei eskaintzen dizkiegu, teknologia horiek hemen landu nahi dituzten edo ez jakiteko. Helburua hemen lanpostuak sortzea da beti,



lanpostu industrialak. Hau da, zerbait fabrikatzeko, ez komertzializazioa bakarrik. Bestalde, bideragarritasun eta merkatu aztertzeak egiten ditugu. Enpresa batek ideia bat badu, hori lantzen saiatzeko gara, eta ea hori bideragarria

"HELBURUA BETI IZAN DA HEMEN LANPOSTUAK SORTZEA; LANPOSTU INDUSTRIALAK"

den edo ez. Eta azkenik, garapen teknologikoa. Saiolan Eskola Politeknikotik dator, eta proiektu ezberdinak garatzen buru-belarri dabilen pertsona bat dugu. Nahiko murrizta da, pertsona bat bakarrik dugulako, baina oraindik mantentzen dugu ingeniari-tza kutsua hor.

Ikerketak ere egiten dituzue berrikuntza proiektuekin lotuta...

Berrikuntza proiektuak ere egiten ditugu, Zientziaren,

Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide garen heinean. Horrela, gure ikerketak nahiko partikularrak izaten dira: adibidez, ikustea kanpoan ze motatako aktibitateak egiten diren, ze aktibitate garatu ditzakegun hemen, ekonomia zirkularra, Gauzen Internet, teknologia garbiak, eta horrelako proiektuak. Arlo konkretu horietan enpresa berriak identifikatzen ditugu.



Gaur egungo aktibitatea

Gutxi gorabehera, 15-16 aktibitate berri sortzen dira urtero Saiolanen bitartekaritzari esker. "Protagonistak ekintzaileak dira; guk laguntzaile edo bitartekari lanak bakarrik egiten ditugu", azaldu du zuzendariak. "Lehen, esperientziarik ez zuten ekintzaileak etortzen ziren, ikasketak bukatu bezain laster. Gaur egun, dagoeneko enpresetatik etortzen dira ekintzaile horiek".

"Arrasateko Eskola Politeknikotik sortu zen Saiolan, eta hori oraindik nabaritzen da duen profil teknologikoan. Proiektu teknologikoak lantzen dituen pertsona bat dago bertan, prototipoak lantzen. Industriarekin harremana ukaezina da, horrela, eta informatika edo mekatronika proiektuak lantzen dituzte, batez ere".

"Enpresa berritzaileei laguntzeko helburua duen entitate bat gara. Alde batetik, BIC Gipuzkoa moduan, publiko eta pribatua uztartzen dituen bakarrak gara Euskal Herrian. Enpresen aktibitatean promozioan eta garapenean buru-belarri gabiltza, gaur egun, Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan. Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide ere bagara. Debagoieneko Mankomunitatearekin lantzen ditugu proiektu gehienak, baina beste mankomunitate batzuekin ere harreman estua dugu. Hala ere, beste eskualde batzuetatik ere, batez ere, kooperatibak badira, etortzen dira gurerak".

Gaur egun, Saiolaneko bazkide Arrasateko Udala, Mondragon korporazioa eta Debagoieneko hainbat enpresa garrantzitsu dira: Fagor, Ulma, JMA, IK4-Ikerlan, Erkide... eta baita Mondragon Unibertsitatea eta Miguel Altuna Institutua ere. "Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta SPRI ere oso garrantzitsuak dira guretako, aktibitate publikoa eurek finantzatzen dutelako Mondragon Korporazioaren Fundazioarekin batera".

36 ekintzaileerendako espazioa dute gaur egun Garaia gunean. Hala ere, gero eta proiektu gehiago enpresen barne-ekintzailetza sustatzeko dira, eta horiek euren enpresetan lan egiten dute. Bakarkako ekintzaileei dagokienez, programazio informatikoaren



4. Aireasy 8000 aerosorgailu eta kontrolatzailea.
5. Inpratex-ekin giro leherkorrendako sorturiko ekipoa.
6. Giltzak bikoizteko makina, JMArekin landutakoa; lehenengo prototipoa.

"Gure sektore industrialia indartzea da helburua"

ANGEL MARI ETXABE SAIOLANeko PROIEKTU ZUZENDARIA

Zer lan egiten du Saiolane eskualdeko garapenari dagokionez?

Beti eduki izan dugu harreman oso zuzena gure eskualdearekin. Debagoienean egoera berezia dugu. Mondragon-eko kooperatibak daude, alde batetik, eta, bestetik, enpresa txiki eta ertainak. Debagoieneko Garapen Agentziak laguntza eskaintzen die txiki-ertain horiei, eta duela 8 bat urte ikusi genuen eurek ahulezia zutela denei laguntza eskaintzeko, eta, gure konpromisoa ikusita, indarrak batzea erabaki genuen. Helburua da Debagoieneko industria-sektorea indartzea. Batez ere, kooperatiba ez diren enpresa txiki horiekin jardun dugu. Zergatik? Mondragon-ek baduelako bere promozio zentroa eta fundazioa. Horregatik bultzatzen dugu elkarlana beste enpresetan.

Garaia gunean enpresa ezberdinen koordinatzaile lanak egiten ditu Saiolane ere. Zer lanketa egiten duzue?

26 enpresa dauden komunitate bat sortu dugu. Garaia gunean elkartzen gara eta guk agente aktibo edo koordinatzaile lanak egiten ditugu. Tartean, teknologia, metodologia edo prozesu berriak edo elkar ezagutzea enpresen artean, formatu ezberdinetan egiten dugu

dibulgazioa eta formakuntza lanekin. Industria 4.0 barnean, adibidez, elkarlanean robotika, Big Data... eta beste gai batzuen gainean formakuntza eskaintzen dugu. Jendearen eta enpresen artean harremanak sendotzea



bultzatzen dugu formakuntza saio horien bidez. Beharrak-eta identifikatzen ditugunean, BIC Gipuzkoak jorratzen dituen aldera pasatzen dira. Hau da, batzuetan, BIC Gipuzkoara etorri beharrean, guk sortzen dugu ekintzailatza


"BIDERAGARRITASUNA AZTERTZEAZ GAIN, PROIEKTUA GAUZATZEN LAGUNTZEN DUGU"

giro hori. Gainera, komunitate honen eta Mondragon-en arteko harremanak sendotzea ere ahalbideratu dugu; ez bakarrik bezero-hornitzaile hartu-emana, baizik eta beste konpromiso mota batzuk ere aurkitzen saiatzen gara. Iaz, esate baterako, hamar ikastaro eskaini genituen eta 266 pertsonak parte hartu zuten.

Produktuak garatzen ere laguntzen diezue ekintzaileei?

Batzuetan, enpresa baten produktua garatu behar duzu, eta guk produktuen garapenen horretan badugu eskarmentua. Bideragarritasuna eta merkatua nola dagoen aztertzeaz gain, proiektuak gauzatzen laguntzen dugu, hain zuzen ere. Hala ere, gure helburu nagusia da Debagoieneko enpresen arteko elkarlana bultzatzea eta beste enpresa txikiei erreferentziak ematea.

1985 eta 2018 arteko enpresa-jarduerak



83 enpresa

Esperientziarik gabeko ekintzaileek sorturikoak. 607 lanpostu.

74 enpresa

Esperientziadun ekintzaileek sorturikoak. 722 lanpostu.

46 enpresa

Enpresekin elkarlanean sorturikoak. 774 lanpostu.

91 dibertsifikazio

Enpresen barnean, eta 1.261 lanpostu sortu ditu.

gainean izaten dira proiektu gehienak gaur egun. Eta "horiek etxetik edota beste toki batzuetatik" egiten dute lan.

Askotariko proiektuak

Lan egiteko prozesuan edo metodologian, hainbat pauso jarraitzen ditu Saiolanek. Lehenik eta behin, prestakuntza mailan ekintzaileengan ideia berriak eragitea. Ondoren, balioztatze mailan, PMT zehaztea (Proiektua, Merkatua eta Teknologia), eta garapen mailan, enpresa proiektua garatzea prototipazioaren bidez. Gauzatze mailan eta sendotze mailan, enpresaren sorreran eta merkaturatzean aholkularitza eskaintzen du, azkenik.

Urtero ehun bat proiektu aurkezten ditu Saiolanek, eta, horietatik, hoge inguru gauzatzen dira. 2018an, esaterako, 17 jarduera berri jarri ziren martxan – horietatik bederatzi enpresa berri eta zortzi dibertsifikazio–; besteak beste, Izarkom, Copreci, Goiener eta Maita kooperatibekin; edota Orettek, Epac3, Hydraulic JM, Garunkook; edota Branka Composites enpresekin.

Gainera, beste hainbat proiektutan ere parte hartu dute 2018an zehar. IIOT da horietako bat (Gauzen Internet Industrial); hau da, *Industria 4.0*. Ekonomia soziala eta solidarioa lantzeko Konfekoop-ekin ere ETEES proiektua egin du. Bestalde, Europatik datorren ORHI proiektuaren lidergoa ere eskuratu du Saiolanek. Nekazaritzako elikagaien sektoreko enpresa berriak ekonomia zirkularraren inguruan batzea eta sinergiak sortzea da proiektu honen helburu nagusia. Beste proiektu interesgarri bat da UIA Debagoiena proiektua. Gipuzkoako ardi-sektorean ekonomia zirkularra bultzatzean datza, hain zuzen. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ardi latxaren artilearen gaineko proiektu bat ere landu dute azkeneko urtean. "Gipuzkoarako eta Euskal Herrirako oso gai interesgarria izango da", azaldu dute Saiolanetik.

Azken urteetan dozenaka proiektu eta prototipo bideratu dira Saiolanen. Besteak beste, Athlon, Lanter, Ekide, Dorlet, Onendis, Proiek eta Eko3r enpresak Saiolanen bitartekaritza esker sortu dira. ■■■

**2018AN, 17 JARDUERA
BERRI JARRI ZIREN
MARTXAN SAIOLANEN
BITARTEKARITZARI
ESKER**

**BESTEAK BESTE,
ATHLON, LANTEK ETA
EKIDE SAIOLANEN
LAGUNTZAREKIN
SORTU DIRA**



Hegazkina ala trena?

Honezkero oporretara begira jarrita dago urtean zehar merituko egin dituen herritarra. Hegazkina, autoa, tren, busa beharrezko bihurtuko zaizkio bere gorputzaren energia hutsa erabiliz bidaiatu nahi ez duenari. Aisialdiari bai, baina kutsadurari ere tokia egingo diogu.

Aurreko asteetan, hegazkinek sortzen duten kutsadura eta esternalitateak izan dira hizpide hainbat komunikabidetan. *Argia*-n P. Zubiriak artikulu argigarri bat argitaratu du airezko garraio bideen kutsadura altua azalduz: "Hegazkineko bidaia batek 1.500 aldiz gehiago kutsatzen du trenaz egindako batek baino". Baina, hala ere, hegazkinek abantaila asko jasotzen dituzte administrazioetatik. Hasteko,

guztiona den airea edo eguratsa eskaintzen diegu, dohainik kutsa dezaten, lehenago lantegiei edota paper ekoizleei ibaiak eskaintzen zitzaizkien bezala. Esternalitate deitzen zaie kostuak konpainiek ordaindu ordez gizartearen bizkar gain geratzen direnei. Ez dira abantaila bakarrak: erregaien zergarik ez dute ordaintzen, eta abar.

Trenari dagokionez, berriaz, ez da erraza Bilbo eta Donostia inguruak kenduta sare egoki bat eskura edukitzea.

BEGIRA DIEZAIEGUN GURE HERRIA EGITURATUKO DUTEN AUKERA EROSO ETA GARBIENEI

AHTA iritsiko denez, ez bakarrik hegazkinei lehia egiteko, baizik eta Euskal Herria bere osotasunean begiratuta egituratzeko aukera estrategiko bezala hartu beharko lukete administrazioek. Gaur egun, ezinezkoa da Baionatik Eibarra edo Bilbora trenez bidaiatzea, ez baduzu saiakeran bospasei ordu eta bi tren-aldaketa, gutxienez, egin nahi. Tuteratik Bilbora ere lau ordu beharko dituzu eta Donostian edota Mirandan tren-aldaketa egin beharko duzu. Gure trenbide sareak ez dio erantzuten nazio estrategia bati. Zaharkitua da oso.

Paris edo Madrilekin lotzeari baino gehiago, begira diezaiegun gure herria egituratuko duten aukera eroso eta garbienei. Tren sare moderno bat ezinbestekoa da. Zeintzuk dira aukerak? Hori beste kontu bat da. ■■■■

EZTABAIDA

Telesailen bizioa eta ondorioak

Telesailen behatokiak egindako ikerketa batean ondorioztatu dute herritarren %86,2k ikusten dituela telesailak. Horregatik, %24,9k gutxiago irakurtzen du eta %17k lo gutxiago egiten du.



JON OLIVARES

'PATRIA' TELESAILKO
AKTOREA

"Telesailen kontsumoan gorakada nabarmena izan da; batez ere, plataforma digitaletan. Kalitatearen hobekuntza da igoeraren ezaugarrietako bat. Horri, etxean nahi dugunean ikus dezakegula gehituta, erosotasuna ere ekarri dute".


**MAIALEN SORZABALBERE**

'PUNTU KOMA' TELESAIL
DIGITALAREN SORTZAILEA

"Faktore askoren elkartzeak eragiten du telesailekiko erakarpen hori. Erraza da telesail bat kontsumitzea. Bestalde, eduki askorekin identifikatuta sentitu ohi gara. Telesailen bidez, hausnarketa eta aldarrikapen sozial asko ere egiten da, eta garrantzitsua da".

XIXILI

HELENA AZKARRAGAUZAR



ERREMATEA



OSKAR ELIZBURU

Euskara eta AEK, plazara

Bukatu da ikasturtea, eta berri pozgarriekin nator; izan ere, aurtun, AEKn ikasle mordo batek jardun du euskara ikasten eta praktikatzen. Zorionez, guregana gero eta jende gehiago hurbiltzen da, klaseen balorazioa bikaina da, berriro matrikulatzen dira eta gomendatu egiten gaituzte. Eta hori gure ikasleek esaten digute, urtero.

Beti izan dugu, baina, *baina* bat balorazio horietan: lokalaren egoera. Gure euskaltegia *sindikatu*en *etxean* egon da azken 30 urtean, eta, egia esan, eraikina bera oso zaharra da, eta, batez ere, hirugarren pisuan egonda, trabak daude bertara joateko. Orain, bertan, alokairurako etxeak egiteko asmoa du Jaurlaritzak, eta euskaltegi berria egiteko garaia heldu zaigu.

Hortaz, behingoz, Debagoieneko AEK-k euskaltegi berria izango du Arrasaten, eta euskara plazara ateratzea errazagoa egingo zaigu hemendik aurrera, Herriko Plazan bertan, Iturriotz kalean, egongo garelako irailetik aurrera.

Inaugurazioa irailaren 11n izango da eta gonbidatuta zaudete guztiok! ■■■



INES ARANO

TELESAILEN JARRAITZAILEA

"Lehen, telesail bateko atal bat ikusten genuen astean, baina orain, oso erraza da denboraldi osoa nahi duzunean ikustea, eskura ditugulako. Nik, adibidez, Netflix, Amazon Prime eta HBO erabiltzen ditut eta denbora gutxian denboraldi osoak ikusten ditut".



JOHN ANDUEZA

IDAZLEA

"Ikus-entzunezkoek kompetentzia itzela egin diote literaturari. Baina telesailek dena irentsita ematen dute eta irakurketak norberari gehiago eskatzen dio; irudimena landu behar duzulako, zuk imajinatu behar dituzulako pertsonaien aurpegiak edota dekoratuak".

Huawei al da benetako arazoa?



URKO LOPEZ EKONOMIALARIA

Duela gutxi, Google enpresak Huawei bere zerbitzuetatik at atera zuen, berau blokeatuz. Telefono mugikorren munduan oso ohikoa ez den neurria eta erabiltzaile askori eragin diona –Estatu mailan heren bat eta Hego Euskal Herrian ere antzeko proportzioa–. Baina egoera hau mugikorren erabileratik haratago doa eta erroak beste esparru batzuetan dauzka botata aspalditik.

Esan beharra dago Huawei enpresak Apple eta Samsung enpresen merkatu-hegemonia mehatxatu duela azken urteotan, gero eta merkatu-kuota handiagoak eskuratuz eta irabaziak areagotuz. Adibide modura: 2018. urteari dagokion ekitaldian 7.850 milioi euro irabazi zituen enpresa honek, 2017. urtean baino %25 gehiago. Beraz, hazkundera nabarmena izan zen eta joera

hori eraman du; orain arte, behintzat. Honako hau txanponaren aurpegia da.

Txanponaren gurutzean, Huawei azken urteotan jasandako salaketak daude, espioitza pertsonal zein industrialari lotuta. Ez dira gutxi txinatar enpresa honen eta beste batzuen aurka izandako salaketak. Nork erabiltzen ditu espioitza hauek eskuratutako informazio-fluxuak? Galdera honi erantzun aurretik, jarraitu dezagun enpresa txinatar honen beste saltsa batzuekin.

Duela gutxi, Alemaniako gobernuak 5G sarea herrialde osoan garatu nahi zuela adierazi zuen. Honek eragin zuzenak ditu, ez bakarrik pertsonen euren telefono mugikorrekin eta antzekoekin izango duten datuen eta abarren abiaduran, baizik eta enpresek *Industria 4.0*-an

izango duten garapenean. Eta nor da teknologia horren zati erraldoia garatuta daukan enpresa? Huawei. Mundu mailan beste hainbat enpresak –europar, asiar zein estatubatuar– baino garatuago dauka 5G teknologia enpresa honek.

Eta kontuetako bat hemen dator: *Industria 4.0* delakoaren garaikurren artean digitalizazioa eta datuen erabilera dira hizpideetako batzuk. Makinen konektibitateak berauen datu-fluxuak erraztu ditzake. Urrundik jakin dezakegu gure lantegiko makinek, edo gure enpresak saldutako makinek, daukaten errendimendua, matxurak, arazo zein bertuteak, baldin eta konektatuta badaude. Baina nora doaz datu hauek behin makinatik aterata eta gure ordenagailu edo beste

gailuetan ikusi aurretik? Hodeira; *cloud* teknologiak dira hemen nagusi. Eta nork kontrolatzen du hodeia? Teknologia horren hornitzailea da hori kontrolatzen duena, eta Huawei balitz hornitzailea, berak izango lituzke datuak, gutaz gain. Txinatarren esku, europarren eta besteen datuak eta informazioa?

Tira, behin hori jakinda, bueltatu gaitezen lehenago erdizka utzi dugun txanponaren gurutzera. Informazio-fluxuak Huawei ditu. Baina Huawei enpresa txinatarra izanik, bertako gobernuak eskuratzen dituen datu guztien kopiak eskatu diezazkioke. Eta honek beldurra sortzen du, honako hau espioitza industrial egiteko erabili baitaiteke. Nork ez digu esaten herrialde horretan, gobernuak lagunduta, gure

makinak baino hobeak direnak sortuko ez dituztenik, gure enpresak merkatutik at utziz?

Eta ze beste informazio lortuko lukete hodei horretatik? Teknologikoa? Finantzarioa? Fiskala? Gobernu-informazioa? Militarra? Hor ere, gure informazioa gaur egun nork duen galdetu beharko genioke gure buruari, eta baita zertarako erabiltzen duen ere.

Agian, arazoa ez da Googlek Huawei blokeatu duela, eta hainbaten mugikor eta gailuekin zer gertatuko den; baizik eta gaur egun potentzia hegemonikoen artean dagoen beldurra: bai beldur ekonomikoa, eta baita beste beldur mota batzuk. Asko daukagu oraindik ere horren inguruan hausnartzeko. Gaur egun hegemonien artean dagoen guda ekonomikoaren kapituluetako bat da hau. ■■■

BESTE HAINBAT ENPRESAK BAINO GARATUAGO DAUKA 5G TEKNOLOGIA ENPRESA HONEK

"Oso garrantzitsua da euskararen presentzia ingurune digitalean"

JOSU WALIÑO PUNTUEUS FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

Bost urte bete dira '.eus' lehen mailako Interneteko domeinu bihurtu zela. "Komunitatearen garapen lokalerako tresna global bezala" laburtu zuten orduan horren arduradunek, euskal kulturaren ikur bihurtu den domeinua. Ordutik, ia 10.000 domeinu eskuratu ditu eta dagoeneko fase egonkor batean sartu da. Testua: **Amaia Txintxurreta Guridi**. Argazkiak: **A.Tx. eta Puntueus fundazioa**.

Betidanik gure artean egon dela dirudi, baina joan zen egubakoitzean bete ziren bost urte lehenbiziko .eus webguneak sareratu zirenetik. 2014ko ekainaren 28a egun historikoa izan zen euskararentzat eta euskal kulturarentzat ingurune digitalean.

Gaur egun, 10.000 domeinuren langa gainditzekotan daude, eta joan zen egubakoitzean egin zuten urteurrenaren jaialdia, sorrera ospatu zuten leku berean: Bilboko Kafe Antzokian.

Bost urte bete berri dituzue. Zorionak!

Eskerrik asko. Oso pozik gaude; egutegian gorritz markatuta geneukan egun horietakoa zen.

Sorreratik hainbat fase pasa dituzue, ezta?

Bai. Jaiotza izan zen aurrena; domeinuaren ametsaren eskaera bideratzea lortu arteko prozesua 2006tik 2013ra bitartekoa izan zen. Gero, gizarteratu egin genuen; 2014an, atera zinetenean [Goiena.eus], aitzindariak izan zineten abenduaren 3an egin genuen aurkezpen hartan. Ondoren etorri zen zabaltzea; bost urte hauetan aritu gara domeinua hedatzen, saretzen, ezagutzera ematen. Bosgarren urteurrenarekin, esan dezakegu domeinuaren kontsolidazio fasea,

sendotzea, iritsi dela. Bost urte izan dira, lanpetuak eta borrokatuak, baina hasierako helburu horiek bete dira; zabaldu da, ezagutzen da, erabiltzen da, ikusgarria da, hau da; sendotu da. Beste fase berri bati ekiteko moduan gaude. **Esango zenuke hasieratik normaltasunez hartu zela domeinua?**

Bai; lehenengo urte hartan sortu ziren oso domeinu garrantzitsuak: komunikabideak sartu zineten, ez bakarrik tokikoak, baita nazionalak ere; erakunde publikoek ere hartu zuten, eta horrek izan zuen traktore-efektua. Dagoeneko ohitu gara .eus gure paisaiaren parte oso naturala izatera; oso denbora gutxian, gainera.

Ekarpen oso handia izan zen euskal kulturarendako.

Niretzat, bere momentuan, ezinbesteko ekarpena izan zen. Askotan esaten dugu, baina euskarak etorkizuna izango badu, ingurune digitala kontuan hartu behar dugu bai ala bai, ingurune digitalean euskarak presentzia izan behar duelako. Eta horretarako, .eus izugarritzko babesa eta txapela da. Euskara da hizkuntza txiki bakarretakoa munduan domeinu propioa daukana. Lorpen horrek izugarritzko garrantzia dauka guretzat herri moduan; nazio marka bat da,



hizkuntza eta kulturaren marka da, ikusgarritasuna eta matrikula bat ematen digu sarean. Beraz, lorpen hori oso garrantzitsua izan zen, eta, gainera, lortu zen moduan; 30 urte Interneteko domeinuak aldatu gabe pasa ondoren, aldaketa etorri zen momentuan sartu zen .eus, eta horrek badu pisua, momentu zehatz hartan sortu zen, eta, zorionez, hor jarraitzen du. **10.000 domeinuren langa hori gainditzear zaudete.**

Bai; marka hori jarrita geneukan proiektuaren bideragarritasuna sendotzearen ikuspegitik. Azkenean, Puntueus fundazioa pribatua da eta gu domeinuen salmentetatik bizi gara. 10.000ko kopuru hori esanguratsua zen guretzako; proiektuaren bideragarritasuna bermatuta dago, bagoaz aurrera. Horrek ekarri ditu, gero, beste ondorio batzuk; prezio jaitziera, esaterako. Izan ere, bost urte hauetan prezioarena, guretzako, borroka bat izan da; oso zaila zen, guretzako, jendeari ulertaraztea zergatik zen. Alegia, .eus garestia goa .com baino. Biak lehen mailako domeinuak dira Interneten, baina jendeari ulertarazi behar izan dioguna da .com-ek 135 milioi domeinu dituela munduan eta gu, bost urteren ondoren, 10.000ra iristen ari garela. Beraz, ikuspegi ekonomikotik bakarrik erabat desberdina da, eta, gure baliabideak hortik datozenez, prezioa jaista ez zen posible orain arte; proiektua pikutara joango litzaguke. 10.000 domeinurekin, apustu handia egin behar izan dugu, baina uste dugu sendotzearen parte izan behar dela prezioaren normalizazioa ere. Domeinua erabat normalizatuta dago gizartean, prezioa ere normalizatu behar dugu eta gainontzeko domeinuen prezioaren pare jarri behar dugu: 19 euroren bueltan dabil, eta, gainera, denontzat da hori horrela hemendik aurrera. Gainera, gure komunitateari, orain arte izan ditugun ia 10.000 lagun horiei, eskertzeko modu bat ere bada. Konpetentziako domeinuek ematen ez dituzten beste gauza batzuk ere ematen ditugu: nortasuna eta gertutasuna, esaterako, eta, gainera, euskaraz.

Esan daiteke .eus domeinua dela euskararen arnagune digitala?

Bai; .eus domeinuak euskarari babes bat eta ikusgarritasuna ematen dio. Gainera, .eus-era etortzen direnak, agian, guztiak ez daude euskaraz, baina guk jendea animatzen dugu .eus izan dadin, guregana etortzean ulertzen dugulako baduela sentimendu bat, lotura bat euskararekiko eta euskal kulturarekiko; bestela, ez luke-eta .eus hartuko. Eta ulertzen dugu laster batean lortuko

duela, baita ere, euskaraz aritzen hastea webgunean. Hor daukagu datua: .eus-en dauden webguneen %90 euskaraz baldin badaude, normalena da .eus-era datorren edonor, lehendik ez baldin badago, euskara etortzen hastea. **Euskarazko edukiak argitaratzeaz gain, euskaraz kontsumitzeko ohiturak ere indartu beharko lirateke?** Hori da kezkatzen gaituen beste eremua. Guk pasa ditugu bost urte gure mezuan eskaintzaren atalean indarra egiten, esanez euskarak behar duela presentzia Interneten. Baina gero, errealitatea da neurtzen duzula erabiltzaileen aldea eta zure buruari galdetzen diozula ea jendeak kontsumitzen duen sortzen dugun guztia. Agian, uste duguna baino gehiago ari gara sortzen edo uste duguna baino gutxiago ari gara kontsumitzen. Egin ditugun neurketen arabera, erabiltzaileen kontzientziazio falta dago. Ez gara jabetzen ez bakarrik euskaraz kontsumitzearen garrantziaz, baizik eta gure gailuak –mugikorra edota ordenagailua, adibidez– euskaraz konfiguratzeko hutsak zer esan nahi duen.

Gazteak .eus proiektuan inplikatzeko ahaleginean, Kaixomundua.eus proiektua ere garatu duzue.

Horren helburua izan da gazteen artean konpetentzia digitalak garatzea, euskaraz. Garbi daukaguna da gazteak direla gaur egun kontsumitzaile digital nagusiak, baina, gainera, izango direla etorkizuneko sortzaile digitalak ere. Ohitu behar ditugu gazteak euskal sortzaile digitalak izatera, beraien euskalduntasuna sarera eramatea. Izan ere, sare sozialetan erdaraz aritzen dira. Beraz, eman behar dugu bidea ikus dezaten euskaraz sor dezaketela, modu errazean, gainera. **Enpresak dira .eus domeinu-izenen %41. Nolakoak dira .eus domeinuan erregistratzen diren erakundeen tipologia nagusiak?**

Gauza kuriozosa gertatzen da; izan ere, jendeak uste du kulturaren, hedabideen eta erakunde publikoen domeinua dela, eta justu kontrakoa da: domeinuen ia erdia enpresei dagokie, eta logikoa da, azken finean, Interneten, batez ere, enpresak daudelako oso aktibo; komertzio txikitik, nazioarteko enpresa handietaraino. Izan ere, .eus dago sektore guztietan: hezkuntzan, enpresan, komunikabideetan, kirolean... Baina egia da enpresetan daukala pisu berezia eta, gainera, enpresa munduan ari dela hazten gehien. Uste dugu hori positiboa dela, horrek adierazi nahi duelako .eus-ek enpresei balio bat ematen diela. **Zenbateraino da garrantzitsua komunitatea Puntueus fundazioan?**



Puntueus komunitatea, bosgarren urteurreneko jaian.

**"DOMEINUEN IA ERDIA ENPRESEI
DAGOKIE; KOMERTZIO TXIKIENETIK
HASI, ETA NAZIOARTEKOETARAINO"**

**"KOMUNITATEA GURE EGUNEROKOAN
OSO PRESENTE DAGOEN '.EUS'-EN
PUNTU GARRANTZITSUA DA"**

**"IKUS-ENTZUNEZKOEN PLATAFORMA
PROPIO BAT BEHAR DA EUSKARATIK
SORTUA, EUSKARARENTZAT"**

Guretzat, ezinbestekoa da. Hasieratik ulertu dugu *.eus-en* lorpena komunitatearena izan dela. 26.000 sinadura bildu ziren bere garaian domeinuaren eskaera egin ahal izateko. Eta ondoren zerbait izan bagara, komunitatearen bultzadari esker izan gara. Gu ahalegintzen gara ahal dugun heinean hori bueltatzen komunitateari, eta egiten ditugun gauza guztiak komunitateari begira egiten ditugu, elkarrekin lankidetzan. Gure egunerokoan oso presente dagoen *.eus-en* puntu garrantzitsua da. **Esan izan duzu euskara eraman behar dugula ingurune digitalera esparru guztietan, baita ikus-entzunezkoetan ere, eta, horretarako, estrategia eta plataforma propioak behar direla gaineratu.**

Bai, guk aldarrikatu dugu euskara zerbait izango bada ingurune digitalean, horretarako estrategia digital propioa behar duela. Gainera, horri jarri behar zaizkiola izen-abizenak, arduradunak eta baliabideak. Orain arte, adibidez, Eusko Jaurlaritzak gomendioen liburua argitaratu zuen, baina, gomendioez harago, politika zehatzak behar dira, eta hor, ikus-entzunezkoak oso atal garrantzitsuak dira. Momentu honetan ikusten dugu Interneten mugitzen den trafikaren erdia baino gehiago ikus-entzunezkoena dela. Hemen kontsumitzen da ikus-entzunezko hori, eta guztia erdaraz da. Beraz, ez du balio euskarazko telebistaren apustu handi bat egitea, sareko ikus-entzunezkoetan fokua ez badugu jartzen. Uste dut nazio ikuspegitik landu behar den gai bat dela eta bai behar dela ikus-entzunezkoen plataforma propio bat Euskal Herritik eta euskaratik sortua, euskararentzat.

Zein norabide hartuko duzue aurrera begira?

Hain zuzen ere, *.eus-en* epe laburreneko erronkak dira, batetik, prezio jaitsiera horrekin normaltasun hori transmititzea gizartean, eta, beste alde batetik, etapa berri bat hastea. Fase berri horretan, lehenbailehen lortu nahi dugu Euskal Herrian *.eus-ek* gure ustez dagokion merkatuko posizioa hartzea. Izan ere, Euskal Herrian erabiltzen diren domeinuen artean hirugarren domeinu bihurtzea nahi dugu *.eus*. Hemen ere, nagusiki mundu guztian bezala, *.com* dago lehenengo, horren ondoren *.es* dago, eta guk hirugarren domeinu hori *.eus* izatea nahi dugu –gaur egun *.net* dago hirugarren postuan–. Gustatuko litzaiguke aipatutako biak ere gainditzea, baina horiek oso urruti ditugu oraindik. Gure helburua da datorren urtean ez bada, hurrengoan hirugarren posizio hori eskuratzea. ■■■

Ez dut entzuten

ENTZUMEN URRITASUNA HAURTZAROAN

GURASO.EUS

ARGAZKIA: ALIREZA ATTARI

Kalkulatzen da EAEn 4.500 pertsonak erabiltzen dutela keinu hizkuntza. Entzumen urritasuna dutenak, berriz, 150.000 lagun inguru dira.

Askotariko arrazoiak egon daitezke entzumen urritasunaren jatorriaren atzean, eta jakinekoea da gorreria jaiotzatik etor daitekeela, baina baita ere geroago ager daitekeela.

Kasua edozein izanda ere, badaude egoera horretan aurkitzen diren familientzako lagungarriak diren hainbat erakunde eta elkarte.

Gipuzkoako familiek, esaterako, eskura dute AransGi – Gipuzkoako Pertsona Gorren Familien Elkartea–, eta gure eskualdeko kasuei arreta emateko egoitza Bergaran dago.

"Gaur egun, jaiotzen diren ume guztiei egiten zaie entzumen proba, ospitalean bertan. Garrantzitsua da gorreria kasuak ahalik eta azkarren detektatzea. Lehenago, kasu gehienak ez ziren neska-mutikoak hizkera garatzeko adinera iritsi arte antzematen. Hau da, 2 edo 3 urte bete arte. Orduan sumatzen zen zerbait ez zihoala ondo", azaltzen du AransGi-ko kide eta irakasle Mercedes Iñarrak.

Gorreria izan daiteke sakona, erdi mailakoa edo arina, eta hiru kategoria horien barruan,

gainera, ñabardurak daude. Hala, lehenengo egitekoa izaten da entzumen proba xeheagoak egitea eta gorreria maila baloratzea. "Ume oso txikietan ez da beti posible izaten, aldagai asko daudelako eta batzuetan probek emaitza bat ematen dutelako eta beste batzuetan beste zerbait. Dena den, garrantzitsua da diagnostikoa egitea; horren arabera erabakiko dira eman beharreko hurrengo pausoak".

Iñarraren esanetan, gaur egun, ez da batere arraroa zortzi edo bederatzi hilabeteko umea audiofonoarekin ikustea.

Bide baten hasiera

Gorreria diagnostikatzen denean, kolpe gogorra jasotzen dute familiek, eta espezialista ugarirekin egotea tokatzen zaie: otorrinolaringologoa, foniatra, protesista, logopeda...

Arreta zerbitzua ere behar izaten dute gehienek; batez ere, egoera ulertzeko, onartzeko eta aurrera nola egin ikasteko.

"AransGi-n baditugu foniatrak, protesistak, logopedak, psikologoak... Arreta goiztiarra eta hezkuntza mailako jarraipena ere eskaintzen ditugu", azaltzen du Iñarrak.

Hala, familiak eskatuz gero, neska-mutikoen jarraipena egiten dute AransGi-n Haur Hezkuntzatik DBHko azken ikasturtera arte. "Batxilergoan eta ondorengo ikasketetan ere bai, kasu batzuetan. Eta baita

ere ibilbide profesionala hasten dutenean".

Familiei zuzendutako arreta zerbitzua ere badutela gaineratu du AransGi-ko kideak. "Azaltzen zaie seme-alabak zein zailtasun dituen, zer-nolako baliabideak dauden, nola egingo dugun lan..."

Familien kezka nagusiak

Guraso gehienek ardura nagusia izaten da ea seme-alaba hitz egitera iritsiko den. "Gaur egun eskura dugun teknologiarekin normalena izaten da entzumen asko hobetzea. Gero, lan sistematiko bat eginez, ohikoa da aho hizkuntza modu funtzionalean garatzea. Dena den, argi izan behar dugu gorrek ez dutela guk bezain argi entzuten. Nahiz eta audiofona edo inplante koklearra eduki, egunean zehar informazio asko ez dute jasotzen. Txiki-txikitatiki eta ordu oro galtzen dute informazioa, eta, horren eraginez, gauzak oker uler ditzakete. Ingurukoek egitekoa da hutsune horiek, nolabait, osatzea". Iñarraren esanetan, gorreria duen ume bat hizketan hasten denean, ingurukoek pentsatu ohi dute ondo entzuten duela, baina ez da horrela. "Umeak hitz egiten duenez, eta kasu batzuetan oso-oso ondo hitz egitera heltzen direnez, gurasoek pentsatzen dute gorreriak dagoeneko ez duela eraginik".

GURASO GEHIENEN KEZKA IZATEN DA EA UMEA HITZ EGITERA IRITSIKO DEN, ETA, ASKOTAN, HORRELA DA

Eskolan gerta daitezke horrelako informazio hutsuneak, edo familia elkartzen denean edo... Horregatik, garrantzitsua da ingurukoek oso kontuan hartzea gertutasuneko informazioa modu zuzenean eman behar dela. Hain zuzen ere, gazteek AransGi-n egiten dituzten saioen helburuetako bat izaten da ikastetxean jaso duten informazioa ondo jaso eta ulertu dutela ziurtatzea.

Proiektu elebiduna

Proiektu elebiduna eta kultura bikoa bultzatzen dute AransGi-n. "Bi hizkuntza erabiltzen ditugu txiki-txikitatik: keinu hizkuntza eta aho hizkuntza bat. Hasieratik jartzen ditugu umeak keinu hizkuntzarekin kontaktuan, eta joaten dira bereganatzen.

Taldea osatu izan denean, ingurukoentzako edo senitartekoentzako ikastaroak ere egin izan ditugu, baina gaur egun, ez daukagu horrelakorik. Donostiako, Bilboko eta Gasteizko elkarteetan egoten dira horrelakoak", azaltzen du Iñarrak.

Oso garrantzitsu deritzote, baita ere, gorrieria duten umeak elkarrekin egoteari. "Uste dugu garrantzitsua dela gorra gorrekin kontaktuan egotea, eta bi komunitateetako kide izatea: gorren komunitatekoa zein entzuten dutenen komunitatekoa".

Erabakigarria da nortasuna garatzeko orduan, eta baita ere garapen emozionalerako. "Kontaktuan egoteak ekartzen du beste gor batzuk ikustea eta ezagutzea, izan txikiak, izan helduak... Eta emaitza hobeak

izaten dituzte. Bi esparru horietan mugitzen direnek oreka emozional hobeaz garatzen dutela ikusten ari gara".

Entzumen galera berantiaragoak

Gorrieria ez da beti jaiotzatikoa. Gertatzen da entzumenarekin jaio eta gorrieria gerora etortzea. Faktore asko egon daitezke horrelako kasuen atzean. Argi dagoena da prozesua ez dela guztiz berdina izaten. "Hemen erabakigarria da aho hizkuntza garatzeko denbora egon den edo ez, eta horrekin batera idazmena eta irakurmena menperatzerik izan den". Izan ere, irakurketaren bitartez informazioa beste modu batera heltzen da. "Gaztaroan edo helduaroan gor geratutako kasuetan esku-hartzea bestelakoa izaten da". ■■■

Lehen Mailara saltoa

NEREA PAVO, ARETO-FUTBOLEKO ATEZAINA

ENeko AZURMENDI

ARGAZKIAK: E.A. ETA NEREA PAVO

8 urte zituenetik jokatzeko du Nerea Pavo eskoriatzarrak (1999) areto-futboleko. Hasierako bizpahiru urteak jokalaria moduan egin zituen. "Baina ikusi nuen ez nintzela oso ondo moldatzen, eta atezain probatu nuen. Askoz ere hobeto moldatzen nintzen atepEAN, eta, gainera, gustatu egiten zitzaidan. Beraz, atezain jarraitu nuen", azaldu du.

Mutulen taldean aritu zen hasiera haieran. "Entrenatu bakarrik entrenatzen nintzen, mutilekin ezin nituelako partiduak jokatu". Hala ere, duela urte batzuk, nesken taldea sortu zen. Bi urte egin zituen talde hartan Pavok, eta gero, Ordiziarako bidea hartu zuen, Bigarren Mailan aritzeko –2016-2017 eta 2017-2018 denboraldiak egin zituen han–. "Nire egunerokoa Eskoriatzan egiten nuen. 06:00etan esnatzen nintzen, Oñatira ikastera joaten nintzen, eta arratsaldean hemen umeak entrenatzen nituen. Ostean, Ordiziara joaten nintzen entrenatzera, astean bizpahiru aldiz. 23:30ean iristen nintzen etxera, eta asteburuetan bidaia egitea tokatzen zitzaidan". Eguneroko okupatu hori edukitzeaz gain, bidaia euren poltsikotik ordaindu

behar izaten zituzten, eta azaldu du azkenerako taldekide batzuk "erre" egin zirela. "Nik ere erabaki nuen Eskoriatzara itzultzea", dio.

Aurten, ordea, urtarrean, Euskadiko selekzioarekin jokatu zuen, eta Bilboko taldean jokatzeko eskaintza egin zioten, "denboraldi amaiera haiekin egiteko eta, batez ere, datorren denboraldiari begira".

Lehen Mailarako jauzia

Bilboko taldearekin Lehen Mailara igotzea lortu du, gainera, eskoriatzarrak. Multzoa lehen postuan amaitu ostean, igoerako kanporaketa Preconte Telde taldearen aurka jokatu zuten bilbotarrek. "Zozketan gutxien gura genuen taldea zen. Izan ere, talde gogorrena zen, hasiera batean. Beraz, haiez ahaztu, eta gurean zentratzen saiatu ginen, ondo entrenatu eta kanporaketa ahalik eta ondoen lantzeko. Urduritasun puntu bat bageneukan, baina, beldurrak alde batera utzi, eta genuen onena ematen saiatu ginen. Zorionez, bi partiduak irabazi ditugu, 1-0 hemen eta 1-2 han", adierazi du Pavok.

Pertsonalki ere "gustura" amaitu du denboraldia, jokatzeko aukerarik izan ez duen arren. "Banekien aurten nire helburua izango zela

taldean ondo integratzea, egokitzea, eta taktikak ezagutzea. Beste atezaina denboraldi guztian aritu da jokatzeko, eta garbi neukan ez nuela jokatu. Azken finean, heldu berria izan naiz. Kontua ez da bakarrik atepEAN jartzea; taldea ondo ezagutu behar duzu lehenik. Hala ere, beroketa guztietara joan naiz, entrenamenduetara ere bai, eta nik uste dut dagoeneko taldeko bat gehiago naizela. Beraz, datorren denboraldian ea zer pasatzen den, baina minutuak jokatzeko borrokatuko naiz".

Babesle bila

Lehen Maila liga bakarra da, ez dago multzorik, eta Espainia osoan jokatu beharko dituzte partiduak. "Datorren denboraldian 120.000 euro inguru beharko ditu, gauzak ondo joan ahal izateko eta eroso jokatu ahal izateko".

Onartu du babesleak lortzea ez dela erraza. "Futboleko taldeak babestea errazagoa da gaur egun. Lehenengo Mailan aukera gehiago izango ditugu babesleak lortzeko, baina, era berean, aurrekontua ere handiagoa da".

Lehenengo Mailarako saltoa "handia" izango dela dio. "Hala ere, ilusio handiarekin goaz, eta helburua mailari eustea izango da", azpimarratu du. ■■■



Nerea Pavo, Eskoriatzako Miguel Muñoz kiroldegian, atepean.



Bilbo FS taldea. Nerea Pavo, eskuinean, goian.

**AURTENGO HELBURUA
TALDERA EGOKITZEA
IZAN DU; DATORREN
URTEAN, POSTUAGATIK
BORROKATUKO DA**

Gure esku dago

DENDA TXIKIAK

JULEN IRIONDO

ARGAZKIA: JULEN IRIONDO

Jone Arrazola antropologoa da, eta ikerlaria –gaiarekin jardun du azkenaldian–.

Komertzio txikian erostean...

1.- ... ez diogu bezero gaituen denda horri soilik bultzada ematen, baita aldamenekoari ere, eta parekoari, eta...: "Oso gutxitan topatuko duzu kale batean zerbitzu edo denda bakarra. Ez dute isolamendua bilatzen, batek beste bat dakar, beti. Komertzioa egoteak komertzio gehiago sortzen du; horiek lanpostuak dira.

Gainera, kontuan izan behar dugu merkataritzan diharduten pertsonen ehuneko handi bat emakumeak direla, eta gazteak baino gehiago helduak: heldu horiek gazte zirenean, agian, ez zuten izan ikasteko erraztasunik; edo garaiko gizarte joerari jarraiki erabaki zuten ama izan eta etxeko lanetan jardutea. Aldiz, garaiak aldatu diren heinean, komertzioa da eurentzat aukera oso on bat, euren gaitasunekin bat datorren lanbide bat delako, eta, gainera, ez duelako titulu bat eskatzen, beste lanbide batzuk bezala. Orduan, ohartu behar dugu gure erosketekin ze pertsonari ari gatzaion lana ematen, eta pertsona horiekin, gizarte modura, zor historiko bat dugula; emakume horiekin, guk, zor historiko bat daukagu, ez zutelako izan edo ez

zitzaielako eman aukerarik eurek nahiko luketen beste lanbide haietan jarduteko: gaur egun, egin dezakegun gutxienezkoa da pertsona horiek babestea eta ahalbidetzea lan bat eduki dezaten eta bizi ahal daitezen".

2.- ... kale biziak bermatzen ditugu: "Komertziodun kale bat kale zaindu bat da, instituzioen partetik, adibidez; kale ederrago bat ere bada; eta seguruagoa, jendea dabilenak. Eta seguruagoa da, batez ere, pertsona nagusientzat eta haurrentzat: etxera bidean, eskolara bidean, nahiago izango dute halako kale batetik pasatu, kale huts batetik baino. Ezagutzen dugun jende artean babestuago sentitzen gara. Sozializazio lekua ere bada kalea; emakumeek azpimarratzen dute hori gehien, helduek bereziki: errekadutara edo umeen bila eskolara doazenean, nahiago dute jendea topatuko duten komertziodun kale horretatik pasatzea, batekin edo bestearekin topo egin eta solasalditxoak izateko modua edukitzearen".

**"ZOR HISTORIKO BAT
DUGU DENDARIEN
ARTEAN GEHIENGO
DIREN EMAKUME
HORIEKIN"**



Jone Arrazola eta Ane

Komertzio txikia baino, beste batzuk lehenesteak dakar...

3.- ... gertuko komertzio horren beharra, beharra, duen hori aukera hori galtzeko arriskuan jartzea: "Debagoienean industriak duen indarra kontuan hartuta, kontraesankorra iruditzen zait, guztiz, dagoen maila ekonomikoarekin, eskuzabaltasun hori ez izatea merkataritzarekin, eta nahi izatea, adibidez, zapatu arratsalde baten erostea. Industrian lan eginez gero,



Zumelaga, Olalde-Sillero oinetako dendakoa, familiako dendari belaunaldietan laugarrenekoa, etxeko tradizioari jarraitzeko apustua egin duena.

zapatu arratsalde baten lan egiteagatik gehigarri bat kobratuko duzu: galdegin diozu merkatari horri berak jasoko ote duen gehigarririk? Ez zaigu datu hori interesatzen, badakigulako injustua dela, eta nahi dugu zapatu arratsalde baten erosteko aukera izatea. Gure jarrerak birpentsatu beharko genituzke; oinarrizko leloa da: zuretzat nahi ez duzuna, bestearentzat ere ez desiratu. Gainera, uste dut, gizon eta autonomo ikuspegitik hasi garela denok bizitzen, ohartu

gabe denok ez dugula gaitasuna automobila hartu eta kanpora eroatera joateko; edo saltoki handi batean ez dakit zenbat metro ibiltzeko, beharrezko dugun hori hartu eta erosteko; edo Internet ulertu eta kudeatu

**"DENOK EZ DUGU
GAITASUNA INTERNET
ULERTU EDO KUDEATU
AHAL IZATEKO,
BESTEAK BESTE"**

ahal izateko: batzuentzako errazena izan daiteke, baina ez gara ohartzen kalte handia egiten ari gatzaiela bai haurrei eta bai nagusiei, adibidez, eta baita migratzaileei edo egoera zaurgarrian egon daitezkeen beste pertsona batzuei ere, ari garelako dena digitalizatzen, dena zailago bihurtzen eta dena despertsonalizatzen".

Jone Arrazola baikor da, ordea: "Gero eta gazte gehiagok apreziatzen du gertuko tratua eta kalitatea, eta ari gara ikasten gure gurasoen bide hori". ■

Etxe Aundi jatetxean produktu freskoak



ELOI IARTZA SUKALDEBURUA

ARGAZIAK: AMAIA TXINTXURRETA GURIDI

Uda sasoiko egun beroei aurre egiteko, bazkari eta afari aproposak eskaintzen ditugu Oñatiko Torreauzoko Etxe Aundi jatetxean. Izan ere, eguneroko menuetan, menu berezietan eta baita taldeetako menuetan ere entsaladen aukera zabala eskaintzen dugu. Esaterako, hauek izaten ditugu aukeran: olagarroarena, itsas-lur entsalada, oilaskoarena, urdaiazpiko eta

gaztarena, txapiroien entsalada eta tomate beteak.

Udarako askotariko zurrupaki freskoak izaten ditugu, baita krema hotzak ere.

Menuen eskaintza zabala

Gogoratu gurean eguneko menuak izaten ditugula, eta, horrez gain, menu berezia, karta edota taldeendako menuen aukera ere badaukagu.

Gainera, gustu eta poltsiko guztietara egokitzen dakigu, betiere, bezeroak eskatzen diguna betez, guztiak

otorduarekin gustura gera daitezten.

Ezkontzetarako menuak dauzkagu eta zeremonia zibilak gurean egiteko aukera ere eskaintzen dizkiegu ezkongaei.

Terraza ere bai

Udako eguraldi eguzkitsuetan gozatzeko terraza ere badaukagu. Horrenbestez, etor zaitez gurera, dastatu otordu zoragarri bat eta disfrutatu ondoren gure terrazan, ingurune dotorean. Ez zara damutuko. ■■■

Etxe Aundi jatetxea

- **Helbidea:** Torreauzo 10, Oñati.
- **Telefonoa:** 943 78 19 56.
- **Webgunea:** Etxeaundi.com.
- **E-posta:** etxeaundi@etxeaundi.com.



ETXE AUNDI JATETXEARI ESKER
IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Gazta-tarta

Osagaiak

- Oinarria egiteko
- Irina, 250 g
- Gurina, 250 g
- Arrautzak, 2
- Azukrea, 35 g
- Betegarria egiteko
- Gazta, 400 g
- Arrautzak, 6
- Esne-gaina, 1 l
- Azukrea, 250 g
- Apaintzeko
- Fruitu gorriak, 200 g
- Azukrea, 200 g
- Ura, 200 ml

Prestaketa

1. Oinarria egiteko, irina eta azukrea nahastu eta sumendi forma eman. Gurina pomada puntuan dagoela, gehitu horri. Eta sumendiaren erdira bota arrautzak. Nahastu guztia, homogeneo gelditu arte. Eta gorde hozkailuan.
2. Betegarriko beharrezkoak diren osagai guztiak batu, nahastu eta irabiagailuarekin pasa.
3. Atera hozkailuan utzitako oinarriaren masa eta luzatu arrabolarekin ahalik eta gehien, baina apurtu gabe. Gero, sartu labera, 175 gradura dagoela, 20 minutuz.
4. Atera oinarria labetik eta gainean jarri aurretik egindako betegarria. Sartu labera 175 gradura, 45 minutuz, eta mamituta gera dadila.
5. Atera labetik tarta, hozten utzi, eta gero, sartu hozkailura.
6. Apaintzeko, egin fruitu gorrien coulis-a, horretarako behar diren osagaiak 15 minutuz egosita. Irabiagailutik eta iragazkitik pasa, egosi ostean.
7. Atera tarta zati bat platerera eta apaindu coulis-arekin.

Zailtasuna: ● ● ● ● ●

Aurreko zozketako irabazlea: Ainhoa Etxabe Okina (Arrasate)

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

Goazen musika entzutera!

MUSIKA JAIALDIETARAKO JANZKERAK

ARANTZAZU EZKIBEL GALDOS

ARGAZKIAK: @ ENDIKACORTAZARR,
@COACHELLA, @ DPK_, @ KNPHAM

Musika jaialdien garaia izaten da uda. Azkena Rock jaialdia eta EH Zuzenean ospatu berri dituzte. Hurrengo BBK Live jaialdiaren txanda izango da. Beroa, musika, lagunartea... egun bereziak izaten dira. Eta, azkenaldian, modak ere bere lekua hartu du musika jaialdietan. Batez ere, Coachella musika jaialdiak batzen ditu begirada guztiak; apiril amaieran Kalifornian ospatzen den jaialdia da Coachella.

Hain zuzen, jaialdi hark ezartzen ditu gainontzeko jaialdietarako joerak, eta baita udakoak ere.

Zer jantzi jaialdi baterako

"BBK Live jaialdia ez da izaten Coachella besteko modernoa, esan daiteke moderatuagoa dela", azaldu du Eneko Prat *instragramer* eta *influencer* bergararrak. Praten esanetan, "moderno pijo" estiloa nagusitzen da gehiago Bilboko jaialdian.

Horrelako jaialdi batera zer janzkera eraman izango da baten baino gehiagoren zalantza. Hala, bergararrak hainbat aholku eman ditu: "Egia da denak balio duela, eta denetik eraman daitekeela. Baina esango nuke oinetako handiak, plataforma handia dutenak, ezin direla falta".



Galtzetin koloretsuak eta luzeak.



Trentzekin, ukitu freskoa.



Tie-dye estanpatua.

Edozein *look* aukeratu daiteke; kontuan hartu behar dena da norbera gustura eta eroso egotea. Eguraldiak baldintzatuko du janzkera; uda izanda, arropa arinak gomendatu ditu Pratek: "Txirrindulari-prakak, top motzak, minigonak... kamiseta gardenak edo sare itxurakoak, eta barrutik bikiniak...".

Rocker estiloa ere nabarmendu egiten da musika jaialdietan: "Mahukarik gabeko kamisetak, praka motzak eta Converse batzuk".

Hawaiiar estanpatua duten kamisetak, praka motzekin eta galtzetin altuekin ere joera izango dira. Baina aurtengo estanpatu izarra *tie-dye* dela nabarmendu du Pratek.

Osagarriei eman garrantzia

Oinarrizko *look* batek beste ukitu bat hartuko du osagarri bereziekin.

Eguzki izpietatik babesteko ezinbestekoak izango dira kapelak eta biserak. Babesa emateaz gain, *look*-ak ukitu freskoa hartuko du. Bestalde, 90eko hamarkada gogora ekartzen duten eguzkitako betaurrekoak dira joera, eta baita ziklisten betaurrekoak ere.

Ileak ere joko handia eman dezake *look*-a osatzerakoan. Trentzak, motots informalak, zapiak... aukera ugari egongo dira ilerako. Izan ere, aurtengo udan ileak garrantzi berezia izango du. ■■■



BBK Live jaialdiko unea; nork bere gustura aukeratutako *look*-a da erosoena.



Galtza motzak, garrantzitsuak.



Kapela, eguzkitik babesteko.



Oinetakoak, sendoak.

Zaletasun izatetik, irakastera

MIKEL FERNANDEZ DE ARROIABE, GIDATZE IRAKASLEA

IMANOL BELOKI

ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO, MIKEL FERNANDEZ DE ARROIABE ETA I.B.

Mikel Fernandez de Arroiabe eskoriatzarrak motorra duen edozerekiko zaletasuna du. Txikitan hasi, eta ordutik aritu da mendiko motorretan, errepidekoetan, 4x4 trialeko autoetan, eta baita auto igoeretan ere. Azken horretan soilik lehiatzen da, eta hurrengo lasterketarako gogotsu dago. Hala ere, bere zaletasuna ogibide izatera pasa da; izan ere, ibilgailuen gidatze irakasle ari da lanean.



Uretako motorrarekin, Mutrikun.

Aritzeaz gain, irakasten

Laster, urtebete egingo ditu Fernandez de Arroiabek Arkauten lan egiten. Gidatze irakasle ari da, motorrean, autoan eta kamioiarekin aritzeko jendea formatzen.

"Irakasle izateko, dagokion ibilgailuaren gidabaimena izan behar duzu, ezinbestekoa da, eta abilezia ere behar izaten da, hor dago ondo gidatzearen gakoa".

Etxean lehiatzeko prest

Auto igoeretarako, BMW E30 autoa du, M3 autoaren motorrarekin. Euskal Herriko hainbat auto igoeratan aritzen da. Aurten, esaterako, lau lasterketatan aritu da, eta emaitza bikainak izan ditu. Lau lasterketatik hiru irabazi ditu bere mailan, eta beste batean, aldiz, bigarren postua lortu du.



Iaz, Mikel Fernandez de Arroiabe eskoriatzarra Leintz Gatzagako auto igoeran.

Uztailaren 13an, Gatzagako igoera izango da, eta, bere lasterketa kuttunena izanik, gogotsu dago eguna heltzeko: "Etxekoen eta lagunuen animoak izugarriak izaten dira, eta helburua podiuma egitea izango da. Izan ere, Gatzagan bi urtez aritu naiz, eta behin irabazi egin nuen; beste behin, aldiz, chicanea ukitu, eta zigortua izan nintzen; ea aurren..."

Denbora aprobetxatuz

Zaletasuna uztartzeko gogoz egoten da beti, eta, zirkuitura joateko edo mendi buelta bat emateko, ahal duen guztietan

ateratzen du denbora:

"Moto-kroseko motorrarekin, Eneko Uribe lagunarekin zirkuitu ezberdinetara joaten naiz; beste batzuetan, aldiz, etxetik gertu, mendian zehar buelta bat egitera joaten naiz. Honekin batera, errepidekoaz aritzea ere gustatzen zait, baina astakiloarena egin barik. Errepidean tentuz aritu behar da. Zoroarena egitera zirkuitura joan beharra dago..."

Uretako motorra buruan

Mota askotariko ibilgailuekin aritzen bada ere, zerbait

berria probatzen izan da duela gutxi. Mendia eta errepidea alde batera utzi, eta Mutrikun izan da Fernandez de Arroiabe, Jet Ski uretako moto bat probatzen. Asko gustatu zitzaion, baina ez dago ziur erosiko duen edo ez. "Lagun batena da, eta erosteko intentzioarekin joan nintzen. Hala ere, garestia da, eta ez da errentagarria irteten. Motorrak duen gastua, kostaldera joan behar izatea... eta, gainera, urtean bi edo hiru aldiz bakarrik aritzeko, ez dakit merezi duen. Hala ere, irrikaz nago berriz aritzeko..."



Moto-krosa egiteko zirkuituan.



4x4 trialekoarekin, elurretan.

Aitor Otaduy

AMAIA TXINTXURRETA

ARGAZKIAK: AITOR OTADUY ETA A. TX.

Margotzea txikitatik gustatu izan zaio Bergaran bizi den Aitor Otaduy arrasatearrari. Papera, arkatza eta pinturak hartuta, liburutako marrazkiak, leihotik begiratzean aurkitutako paisaiak eta objektu bizigabeak margotzen hasi zen. Gerora, Arrasateko hainbat margo taldetan ibilitakoa da, eta, lana dela-eta izan zuen etenaren ostean, berriro ekin zion bere zaletasunari modu serioagoan duela bospasei urte.

Paisaia urbanoak marrazteko joera izan duzu betidanik, ezta?

Hala da, bai. Egin ditudan lanetatik, pixka bat berezia izan da, esaterako, New Yorkeko Times Square-ko kale bat marraztu nuenekoa. Argazki batetik atera nuen, eta, hori eredu bezala hartuta, moldaketa batzuk egin nizkion gero; collage apur bat ere egin nuen lan horretan. Bilboko portuko beste hiru koadro ere eginda dauzkatzat, trilogia moduan.

Dena den, aurpegiak ere marraztu izan dituzu.

Bai; aurpegiak marraztea konplikatuagoa izaten da, pertsonaren espresioa ere islatu beharra daukazulako. Duela urte asko, figura bat ere egin nuen, ohiko nire lanetatik pixka bat aldendutakoa, eta kostatu zitzaidan bolumenak ondo



ematea eta aurpegiko naturaltasun hori ematea. Hori egin ostean, berriro itzuli nintzen eroso sentitzen nintzen arlora; paisaia urbanoetara. Duela urte batzuk, askotariko maskarak egiten ere jolastu nintzen, kolore askorekin. Dena den, aurpegiak baino errazago marrazten dira maskarak, ez duzulako espresioa edota bizitasuna lortu behar.

Egin duzun azken lanean, baina, aurpegi bat marraztu duzu.

Bai; Kulturateko margo taldean taldekako lanak ere egiten ditugu, eta, azkenengoan, aurpegi baten zati bat marraztea egokitu zitzaidan. Horrek bultzatuta, nire bakarkako hurrengo lanean ere



aurpegi bat egin dut eta nahiko pozik gelditu naiz bukaerako emaitzarekin. Prozesua iruditan ere jaso dut, hurrengo orrian ikus daitekeen moduan.

Nola definituko zenituzke egiten dituzun lanak?

Joera daukat errealismora jotzekoa, eta, margo gutxi erabilita, mihisea asko betetzen dut. Trantsizio nahiko garbiak egiteko joera ere badaukat.

Lanetan sinadura ezkutuan jartzeko ohitura daukazu.

Bai; gauza batzuk ezkutuan jartzea gustatzen zait, eta sinadura da horietako bat. Ez daukat sinadura ohiko bat, koadroaren arabera aldatzen dut, eta ikuslearekin jolasa bilatzen dut. ■■■



Nina Simone
abeslariaren koadroa
egiteko prozesua
iruditzen.



Euskara ikasten eta maitatzen

EUSKAL KULTURGINTZAREN TRANSMISIOA GRADUONDOA

MAIDER ARREGI

ARGAZKIAK: @ARTGIA_DA
ETA MAIDER ARREGI

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoaren azken saioan, Arabako euskalduntasunean sakondu dute ikasleek. Zehazki, Gasteizko hiriburuak azken bizpahiru belaunaldietan izan duen goranzko bilakaera bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute.

Horretarako, baina, bi proiektuarekin aurrez aurre bat egin dute ikasleek: Lazarraga kultura elkartearekin eta Artgia proiektuarekin.

Lazarraga kultura elkarte

Kafe Antzokiaren proiektua aldarrikatzeko helburuarekin

jaio zen Lazarraga kultura elkarte, 2012an. "Euskara ardatz izango zuen kultura proiektua jarri gura genuen Gasteizen martxan, eta, hori aldarrikatzeko, herri plataforma sortu genuen. Lazarraga elkarte Kafe Antzokia eskatzeko plataformaren garapen naturala izan zen", azaldu du Lazarraga kultura elkarteko kide Iñaki Lazkano *Kixki*-k. "Oihaneder Euskararen Etxea martxan jartzea adostu genuen orduko Udalarekin gure proiektua den Kafe Antzokia aurrera ateratzeko. Hala, horrelako proiektu bat martxan jartzeko nolako lana eta dedikazioa den ikasi dugu. Pozik gaude hartu genuen erabakiarekin. Eta

bost urte hauetan matraka ematen jarraitu dugu; izan ere, proiektuaren bigarren hanka, Kafe Antzokia, falta zitzaion, euskarak aisialdigunea ere behar-beharrezkoa du eta".

Gasteizen, 60ko hamarkadan, sekulako ahalegina egin zuten gurasoek eta herritarrek euskaltegiak eta ikastolak sortzeko. Eta azken hiru belaunaldietan Gasteizen jende askok ikasi duela euskara eta euskara maitatzen azpimarratu du *Kixki*-k. Datuek argi diote: Gasteizen 55.000 euskaldun daude. Hau da, populazioaren ia erdiak euskara ulertzen du: "80ko hamarkadan, %5ek soilik

Graduondoko amaiera festa borobila

Mixel Ducau eta Caroline Phillips ibilbide oparoa duten musikariaren eskutik ospatu dute ikasleek amaiera festa.

Bikoteak Bidaia taldea osatzen du eta euren ibilbideko diskoetako hainbat kantu entzuteko aukera izan zen MUko Ikus-entzunezkoen Fakultatean. Aitor Sarasuak eginiko doinuak dituztela kutunenak aitortu zuten.



Mixel Ducau eta Caroline Phillips, graduondoko amaiera festako emanaldian.



Artgia galerian ikasleak solasaldian.

zekiten euskaraz. Gaur egun, %25era hurbiltzen hasi gara. Ia Gasteizko populazioaren erdia gai da euskara ulertzeko".

Arabako euskaltzaletasunaren beste katebegi bat bezala sentitzen direla aitortu du. Gasteiz euskaldunago egiteko kultura proiektuak ezinbestekoak direla dio: "Gasteizen izan zen galera prozesuari buelta ematea dugu helburu, eta, horretarako, kulturaren alor ezberdinak dira gakoa. Euskaraz egiten den kultura bizirik dagoela erakutsi gura dugu, eta kultura moderno eta abangoardista egiten erreferente izan gaitezkeela".

Artgia galeria

Artgia ekimenak, berriz, artea eta kultura batzen ditu. Gasteizko Judimendi auzoan

dago galeria. Baina areto izatetik harago doan proiektua da. Sinergiak sortzeko eta jendeari laguntza eskaintzeko gunea egin gura izan dutela ere badio Artgiako zuzendari Irantzu Lekuek: "Jendarte eraldaketa da gure helburuetako bat, horma-irudien bitartez eraldaketa soziala lantzen dugu eta. Oso garrantzitsua da, guretzako, pertsonen horma-irudia lantzean sortzen zaizkien barne sentimenduak

**"GAUR EGUN,
GASTEIZKO
POPULAZIOAREN IA
ERDIAK ULERTZEN DU
EUSKARA"**

azaleratzea. Talde baten kide sentitzen dira. Hainbat kolektiborekin lan egiten dugu: kartzelan egon direnekin –batez ere, emakumeekin–, arazoak dituztenekin...".

Margotze taldean murgilduta, arte terapia egiten dutela gaineratu du Lekuek: "Uste dut hezigarria eta polita dela eurendako. Terapia egiten dugu elkarrekin". Artea aretotik kalera atera eta herritarrei gerturatzea ere bada Artgiaren helburua. "Ez dugu nahi museo handietan gertatzen dena gertatzea. Hau da, ez dadila guztia galeriaren barruan geratu. Jendeari zabaldu, eta, artearen bidez, jendea ez ezik, lanak ere ezagutzen ditugu. Jendea gerturatzen da egiten duena erakusteko asmoz". ■

Hartu-emanak



MAIALEN SANTOS

Betidanik pentsatu izan dut ahoz ahoko komunikazioa dela dagoen onena. Are, komunikazio motarik eraginkorrena dela uste dut. Gainontzekoak bezala, ahoz ahokoa ere igorle eta hartzaile arteko elkarreaginean datza, baina beste zenbait faktoreri ere erreparatu behar zaie komunikazio mota hau egoki gerta dadin.

Alde batetik, igorleak esaten ari den horrekiko konfiantza eta segurtasuna duela transmititu behar du: hots, kontatzen ari dena sinesten duela erakutsi. Bestetik, hartzaileak entzuten ari dena sinesgarria ote zaion baloratu behar du, baita igorlearen hitzarekiko jarri nahi duen konfiantza maila zehaztu ere.

Lerro hauek irakurtzen ari zaren horrentzat: azalpena konplexuegia iruditu daiteke, baina kasu praktiko batera eramanda ahoz ahoko komunikazioa uste baino eraginkorragoa dela frogatu dezaket.

Esaterako, duela gutxi, *Berria* egunkari digitalak argitaratu zuen Google Maps sarritan galbide ere izan daitekeela: bideak topatzen lagundu baino gehiago, irteerarik gabeko bidezidorretan ez atzera ez aurrera geratzeari



EMAZE.COM / PMK

leporatzen zioten zenbait erabiltzailek aplikazioari. Ez dut esango Maps aplikazioa inoiz erabili ez dudunik, hala esatekotan gezurretan ariko nintzateke eta. Halere, nahi dudana lekura iritsi ez eta nazkatuta amaitu dudana guztietan pentsatu dut hobe nukeela inguruko norbaiti argibideak eskatu: salbuespenak salbuespen, informazio fidagarriagoa lortzea errazagoa da norbaiten ahotik irtendako informazioaz baliatzen bagara.

**AHOZ AHOKO
KOMUNIKAZIOAREN
ALDE EGITEN DUT AHAL
DUDAN GUZTIETAN;
ERAGINKORRENA DA**

Eta antzeko zerbaitek gertatzen da urteko sasoi honetan: oporrak antolatzeke orduan, hain justu. Xarma berezia duten bisitatzeke lekuak topatu nahian gabiltzanerako Google bilatzailea lagungarri suertatu daiteke, baina zin dagit merezi duten leku horietara iristeko giltza ez dizula Googlek emango; haragi eta hezurrezko norbaitek baizik.

Oraindik kazetari proiektu naizen honetan, jadanik jabetu naiz ahoz ahoko komunikazioak duen balioaz. Eta zergatik ez esan, honezkero konturatuko zinen komunikazio mota honen alde apustu egiten dudala ahal dudana gehienetan, behintzat. Internet, adibide bat jartzeagatik, oso lagungarri zaigu, baina iruditzen zait konexiorik ez genuenean ere gai izaten ginela hutsune hori betetzeko... Eta ondo bete, gainera!

Pertsonalki, plazer hutsa da era zuzen eta azkar batean komunikatu ahal izatea. Plazera da ondokoari baliagarriak zaizkion gomendioak ematea, eta ondokoak lagundu nahi zaituela ikustea. Horretan datza ahoz ahokoa, bi aldeek ezer galtzekotik urrun, guztia irabazteko dutenean gertatzen den hartu-emanen. ■■■

Goiena Klubaren txokoa

Hauek dira ekaineko irabazleak!

ARRASATEKO TRIKITIXA ESKOLAKO CDA

Juan Carlos Kortazar Uribesalgo (Eskoriatza)

HARREMAN DENDAKO OTARREA

Arantxa Zeziaga Mondragon (Aretxabaleta)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Fernando Contreras Munilla (Bergara)

Jose Luis Ugalde Orobengoa (Arrasate)

Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)

EHZ FESTIBALERAKO SARRERAK (FACEBOOK)

Ainara Inuntziaga (Aramaio)

German Arriola (Aretxabaleta)

DRAGOI JANERAKO GONBIDAPENAK

Eduene Caciaga Mondragon (Arrasate)

Iker Arostegi Gallastegi (Arrasate)

ERREKI JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Unai Iñarra Lasa (Bergara)

LASA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Ana Arturo Sukilbide (Oñati)

MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Alberto Moncayola Beain (Bergara)

MAUXKA JATETXERAKO BI PERTSONENDAKO OTORDUA

Idurre Elorza Barbero (Oñati)

SARIAK JASOTZEKO:

Arrikruzteko sarrerak. Goiena klubeko txartela erakutsita, bina sanera izango dituzue Arrikruzteko txarteldegian. Sarreiek 3 hilabeteko epe muga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBAK.** Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00. Ordutegia: Asteartetik Igandera 10:00 - 17:00 (Aurrez deitu hitzordua egiteko) Harreman dendako otarrea **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Eroski hipermerkatuan duen dendara. **Lehenengo saria jasotzeko,** zatzoz GOIENAvan egoitza. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman behaiko da. GOIENA Otarrea Lizentziaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Ordutegia: Astelehenetik eguenera: 09:00 - 18:00. Egubakoitzetan: 08:00 - 14:00.



Puntua aldizkaria
jasotzeko,
zozketetan parte
hartzeko eta txartelaren
abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitetz 2019ko
uztailetik aurrera: 31€
Deitu: 943 25 05 05
kluba@goiena.eus

goienakluba

Bainuetxeen hiria

ARETXABALETAKO URETSEN IBILBIDEA

MIREIA BIKUÑA

ARGAZKIAK: MIRARI ALTUBE ETA
ARETXABALETAKO UDALA

Aretxabaletako lurretan hainbat iturri mineral daude. Iturri horiek aintzat hartuta, Uretsen Ibilbidea egin daiteke han. XIX. mendeko bainuetxeen historia ezagutzeko. Otalorako bainuetxea zegoen tokian hasi, eta Areantzako eta Mendiolako elizateetan bukatzen da. Otalorako eta Ibarako bainuetxeen arrastoak eta horiek ur sufretsuz hornitzen zituzten iturriak ikus daitezke.

'Madrid chiquito'

Aretxabaletako lehenengo bainuetxea 1843an eraiki zuten: Ibarra bainuetxea. 1881ean, Azkoaga anaiek erosi zuten, eta, eraberritze lanen ostean, bainuetxeen loraldia bete-betea harrapatu zuen. Ostatu-etxea, bainuetxea eta bi eraikinak komunikatzen zituen kristalezko galeria bat zuen.

Bainuetxeak zortzi kabina zituen, eta horiek bakarkako hamasei bainugelarekin zeuden komunikatuta. Horietako bakoitzean, marmol leunduz egindako bainuontzi handi bat zegoen. Erabiltzaile gehienak Madrildik etorritakoak ziren. Aretxabaleta *Madrid chiquito* ezizenez ezagutzen zen, eta bainuetxea zegoen auzoari Puerta de Sol esaten zioten. Egun, Portasol izena erabiltzen dute.

Loraldiaren ostean etorri zen gainbehera. 36ko gerran, bi bandoetako militarren tropak egon ziren bainuetxean. 1936an itxi zuten betiko.

Harrikoa egiteko lekua

"Bizia ematen du, egarria asetzen du, garbitu egiten du..."; horiek ziren Ibarra bainuetzeko uraren ezaugarrietako batzuk. Tokiko garbitegiari *gobadalekua* esaten zioten. *Gobada* hitzak *arropa esekitzeko lixiba* esan gura du. Hortaz, *gobadalekua* zen lixiba egiteko lekua.

Ibarra bainuetxearen azken aztarnetako bat da emakumeek harrikoa egin zuten lekua. Azpiegitura ikusita, garbitegia eta lixiba egiteko lekua izan zela uste da. Kokapenarengatik, garbi dago han garbituko zituztela bainuetzeko izarak eta mantelak.

Urrezko domina Bartzelonan

Otalora jauregian topatutako urari etekina ateratzeko, bainuetxea egin zuten han, 1866an. Iturburuaren mailatik behera bainuak zeuden; eta goiko solairuan, ostatua. Hotela

**IBARRA BAINUETXEKO
URAK URREZKO
DOMINA IRABAZI ZUEN
1888AN, BERE
EZAUGARRIENGATIK**

XVIII. mendeko eraikin bat zen. Zurezko hodien bidez eramaten zen ura bainuontzietara. Gainera, ur hotzarendako eta beroarendako biltegiak zituzten.

Otalorako urak ezaugarri oso bereziak zituen: litroko bost gramo gatz zituen. Horren arabera, hainbat gaixotasun tratatzeko erabiltzen zen: erreumak, herpesak, sifilia, katarro kronikoak eta asma, besteak beste. Era berean, oso baliagarria zen azalen gaitzetarako.

Halako konposizio aberatsarekin, 1888ko Bartzelonako munduko erakusketan, urrezko domina jaso zuen.

Otalora bainuetxea 1896an itxi zuten. 1905ean, Arrasateko agustindar mojak joan ziren eta eraikina komentu gisa erabili zuten, bota zen arte.

Iturriak ere bai

Uretsen Ibilbidean, Mendiolako eta Aintziniturriko iturriei buruzko erreferentziak ere ikus daitezke. Iturri horiek nortzuek eta noiz aurkitu zituzten ez dago dokumentatuta. Baina jakinekoea da iturri bakoitzeko uraren ezaugarriak nola baldintzatu duen ingurua. Adibidez, Aintziniturrin ikus daiteke hango urek ze eragin izan duten gaztainondoetan. Lepatutako zuhaitzek erakusten dute ehunka urte bidaiatzeko bidean daudela. ■■■



Ibarra bainuetxearen itxura, XIX. mendean.



Geratzen diren Ibarako bainuetxearen aztarnak.



Bainuetxerako ur biltegietako bat.



Skateflash SK Urban 3.0

Patinete. Skateflash. 450 euro.

Patinete elektriko honek autonomia handia eskaintzen du -30 kilometro- eta 40 km/h abiadura har dezake. Eskulekuko LCD pantailaren bidez ikusi daiteke abiadura. Tolesgarria da eta, zutik utzi nahi bada, ez erortzeko euskarria dauka. 150 kilo eramateko prestatuta dago eta freno bikoitza dauka, aurrean eta atzean.



Dyson Pure Cool Me

3.0. Haizagailua. Dyson. 349 euro.

Aurpegia freskatzeko helburua dauka gailu honek. Modu horretan dago diseinaturik eta aurpegitik 20-40 zentimetroko distantziara jarri behar da. Airearen norabidea zehazteko aukera eskaintzen du. HEPA filtroaren bidez airea iragazten du, eta osagarri toxiko zein hautsa garbitu. Iragazkia noizbehinka aldatu behar da eta 62 euro balio du.



Cubot Quest Lite

Mugikorra. Cubot. 125,57 euro.

Kirolarientzako diseinaturiko mugikorra da hau. Karkasa erresistentea dauka, ur, hauts zein erorketetarako prestatuta. Ur azpian 30 minutura arte egon daiteke -1,5 metro-. Muturreko tenperaturetarako prestatuta dago, -40tik 70 graduraino. Mota honetako mugikorrek alderatuta, nahiko mehea eta arina da: 151,96x74x8,8 mm eta 179 gramo.

lanerako gertu!

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

2019-2020

» Oñati gestio
heziketa

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Matrikulazioa

Uztailaren 11tik 17ra

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

MGEP





- Automatizazioa eta Robotika Industriale
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriale

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Dragoi-burua kartoizko arrautza-kaxekin



EGILEA: TXATXILIPURDI

ARGAZKIAK: TXATXILIPURDI

ARGAZKIETAN: MALI JUARISTI.

Material birziklatuarekin gatoz berriz ere. Material agortu ezina da gure etxeetan, eta baliatzeko oso erraza. Gaur, arrautza-kaxekin sortzera gonbidatu nahi zaituztegu. Guk dragoi itxurako txotxongiloa egin dugu. Ea zuek zer asmatzen duzuen! Eta gero, asmatu ipuina. Erabili irudimena eta gozatu!

Materiala

- Kartoizko arrautza-kaxak.
- Oihal zati bat.
- Makila bat.
- Begiak.
- Koloretako kartoi mehea.
- Guraizeak.
- Kola.

Urratsak

1. Arrautza-kaxei forma eman

Erabaki dugu arrautza-kaxa izango dela dragoiaren ahoa. Begiak beste kaxa batekin egingo dizkiogu. Horretarako, ebaki eta prestatu egingo ditugu kaxak; eta gero, itsatsi egingo ditugu.

2. Ilea, mingaina eta begiak ipini

Dragoiari ilea eta mingaina egiteko, koloretako kartoi mehea erabiliko dugu. Ebaki irudikatutako forma emateko, eta itsatsi. Amaitutakoan, begiak ere gehitu.

3. Oihal zatia itsatsi

Dragoi-burua txotxongilo bilakatzeko, oihal zatia erabiliko dugu. Dragoi-buruari itsatsiko diogu.

4. Eskua gehitu

Azkenik, eskua egingo diogu. Makila zati bat erabiliko dugu horretarako, eta itsatsi egingo dugu.





Maddi Alexandra de Jesus Chavez

Bergara. 2,980 kilo. Ekainaren 30a.
Gurasoak: Selvy eta Sandro.
Argazkian, amaren besoetan.



Oihan Unamuno Granouillet

Aramaio. 2,600 kilo. Ekainaren 26a.
Gurasoak: Marion eta Aitor.
Argazkian, Zuhaitz eta Haizea anai-arrebekin.

Jaio da!

**Eman jaiotzen berri PUNTUA eta Interneten.
Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz
GOIENAREN egoitzara.**



Asteleheneko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik argitaratuko ditugu.
Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



Gurasoen premiak asetzeko gunea
guraso.eus

- Gurasotasunaren gaineko iritzi artikuluak.
- Aisialdirako gomendioak.
- Adituei elkarriketak.



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • AFRASATE • 943 71 18 70



Das Auto.

VW Tiguan

